



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA **2005eko irailaren 29ko ohiko bilera**

BERTARATU DIRENAK:

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn. (1)
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

IDOIA NOBLE and.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARAGÜENA and.

(1) 14. puntuko bozketa egin aurretik joan da

Leioako udaletxean, bi mila eta bosteko irailaren hogeita bederatziko iluntzeko zortziak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2005eko UZTAILAREN 28ko OHIKO BILERAREN AKTA ONESTEA: Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, bi mila eta bosteko uztailaren hogeita zortzian egindako ohiko bileraren akta onetsi du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

2.- HAPOn ZATI BATEN ALDAKETA, 29. ARLOARI ("VEGA DE TXAKURZULO") BURUZKOA, ETA INDUSTRIA-ERABILERA ARAUTZEN DUEN ARAUA HASIERAN ONESTEA.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko irailaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 518/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko irailaren 14an hartu zuen 122 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udalaren osoko bilkurak, 2005eko ekainaren 22an hartu zuen 2. erabakiaren bitartez, hasieran onetsi zuen Plangintza zati batean aldatzea 29. arloan (Vega de Txakurzulo), eta industria-erabilera arautzen zuen araua.

BAOn eta egunkarietan argitaratu ziren horri buruzko iragarkiak eta, horretarako ezarritako epean, inork ez du alegaziorik aurkeztu. Beraz, behin-behinekoz onetsi zen espedientea.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak adierazi du osoko bilkuraren erabaki egokiaren bitartez gauzatu behar dela HAPOn zati baten aldaketaren onespena, ondoren Bizkaiko Foru Aldundiari bidali eta horrek behin betiko onetsi dezan. Izan ere, horixe agintzen dute Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) eta 22.2.c) artikuluek eta Eusko Legebiltzarraren 5/1998 Legearen 3. artikulua, abuztuaren 25eko 3.288/1978 Errege Dekretuak onetsitako Lurraren Araudiari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen testu bateginaren 41. eta 49. artikuluekin bat etorriz.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Zati baten Aldaketa, 29. arloari ("Vega de Txakurzulo") eta industria-erabilera arautzen duen arauari buruzkoa, behin-behinekoz onestea erabaki du; halaber, Foru Aldundiari bidaliko zaio espedientea, behin betiko onesteko. Horrenbestez, berretsi egingo da Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpena.

3.- HAPOk 29. ARLOAREN ("VEGA DE TXAKURZULO") XEHEKAPEN AZTERLANA HASIERAN ONESTEA.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko irailaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 519/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko irailaren 14an hartu zuen 123 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2005eko ekainaren 21eko 412. ebazpenaren bitartez, hasieran onetsi zuen 29. Arloaren (Vega de Txakurzulo) Xehekapen Azterlana. Onespen horri honako zehaztapenak ezarri zitzaizkion, hala ere:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

1. *Espediente hau Dow Chemical, Eroski, Multicentro del Hogar "Tucan" eta Repsol gasolindegia enpresei jakinaraziko zaie, espedienteko aurreikuspenekin ados dauden ala ez azaltzeko aukera izan dezaten.*

2. *Xehekapen Azterlanaren ale bat helaraziko zaio Herri Lan Sailari, eraikuntza eta lur-zatietarako sarbideak alboko bidetik atzeraemateari buruzko txostena egin dezan. 29. arloaren aurrean dagoen alboko bidearen hirugarren erreiak jadanik badauden errei bien zabalera berdina izango du. Espaloia 4 metro zabalekoa izango da. Irekiko den kale berriaren, Dow Chemical enpresaren aparkalekuaren eta alboko bidearen arteko elkargunerako erabakiko den irtenbideak Foru Aldundiaren Herri Lan Sailaren oniritzia jaso beharko du.*

Horren harira, Fernando Arroyo jaunaren idazkia jaso da, Botica Vieja 2000 S.L. merkataritza-etxearen izen eta ordezkartzan jardunez. Bertan, 29. Arloko sarrera eta irteerak eta alboko bidearen eta irekiko den kale berriaren arteko elkargunea aztertzeko Foru Aldundiko Herri Lan Sailarekin izandako batzarren berri eman du. Idazkiarekin batera Sail horren bideragarritasun espedientearen kopia erantsi da, Vega de Txakurzulo arloaren sarrera eta irteeretan obrak egiteko aukerari buruzko aurreiazko irizpena emanaz. Beste alde batetik, Dow Chemical Ibérica, Eroski S. Coop., Multicentro del Hogar Tucan eta Repsol gasolindegia, espedientea behin-behinekoz onetsi dela jakinarazi zaiela, ez dira agertu jendaurrean azaltzeko epean; hori dela eta, bertako aurreikuspenekin ados daudela ulertu da. Era berean, aurreko puntuak azaltzen dituzten kaleen geometria horizontaleko planoan ere erantsi da, eta zuzendu egin behar da: alboko bidearen aurrealde osoko espaloia 4 metro zabalekoa izan behar da gutxienez, 2005-06-21eko ebazpenak ezarritakoari jarraituz.

3. *Irekiko den kale berrian aurreikusi diren lorategi-guneak mantentzeko lanak 29. arloa berriro zatitzeko adjudikazioa dutenen pentzurakoak izango dira.*

4. *P-03 planoetan azaldutako lur-zatien azalera zuzenduko da. Izan ere, Udaleko Zerbitzu Teknikoek egindako neurketen arabera, honakoak dira euren neurriak:*

Lur-zatia	Azalera
1	10.158 m ²
2	11.522 m ²
3	50 m ²
<i>Eskubideak dituen lur-zatia, guztira</i>	21.730 m ²

Ez da inolako alegaziorik aurkeztu zehaztapen horien kontra. Beraz, irmoak izango dira eta xehekapen azterlanaren testu bateginean azalduko dira. Hori, 1. lur-zatirako obra lizentzia eskatu aurretik edo eskabidearekin batera aurkeztu beharko da udaletxean.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak, ondorioz, espedientearen behin betiko onespina udalaren osoko bilkurari bihurtzearen aldeko irizpena eman du. Era berean, BAO n argitaratuko da inguruabar hori, Plangintzaren Araudia onetsi zuen ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuaren 140. artikuluan adierazitakoari jarraituz.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpena berretsiz, **ahoko batez erabaki du** 29. arloaren (*Vega de Txakurzulo*) Xehekapen Azterlana behin betiko onestea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta espedientearen Foru Aldundiari bidaltzea, jakin dezan eta ondore egokiak izan ditzan.

4.- HAPOnen ZATI BATEN ALDAKETA HASIERAN ONESTEA, 33. SEKTOREAREN (PIKUETA) ETA 13. ARLOAREN (TXORIERRI) ARTEAN SARTZEKO MODUKO HIRI-LOTURA IREKITZEKO, 45. ARLOA SORTZEAREN BITARTEZ.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko irailaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 522/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko irailaren 14an hartu zuen 126 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Goiburukoan adierazitako espedientearen berri eman da. Horren helburua Pikueta plazaren eta Txorierri auzoaren artean igogailu oker bat instalatu eta azken horretan 150 metro luze izango dituen oinezkoentzako zumardi horizontala sortzea da, auzoaren ekialde eta mendebaldea lotuz. Proiektuak, era berean, 74 etxebizitza eta garajeak izango dituen eraikina eraikitzea ere azaltzen du, egoiliarren artean salduko direla.

Espedienteak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutakoari eragiten dionez, uztailearen 22ko 183/2003 Dekretuan ezarritakoaren arabera, beharrezkoa da honekin batera Ingurumenaren gaineko baterako ebaluazioaren azterlana ere idaztea. Ingurumen alorrean agintaritzaren organoak (Foru Aldundiko Ingurumen Sailak) aldeko txostena eman dio aipatutako txosten horri, 2005eko ekainaren 2ko 1.184 Foru Aginduaren bitartez.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak udalaren osoko bilkurak honako erabakiak hartzea komeni dela iritzi du:

- Hasieran onetsiko da adierazitako espedientearen.
- Apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuaren 41. artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren uztailearen 22ko 183/2003 Dekretuaren 2.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, jendaurrean azalduko da hirigintza-espedientearen, ingurumenaren gaineko baterako ebaluazioaren azterlanarekin batera. Hilabeteko epean egongo da jendaurrean, BAOan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, alegazioak aurkeztu ahal izan daitezten. Era berean, horri buruzko iragarkia argitaratuko da egunkarietan.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Plan Orokorren aldaketa hasieran onesteko fasean dagoela esan du, hau da, Plan Orokorra aldatzeko eta, zenbait lurzoru kalifikatuta, Lamiako eta Txorierri bitarteko lotunean aldaketak egiteko egin behar den lehen onespenean. Horrenbestez, lehenbailehen eta guztien laguntzarekin, auzoaren hegoaldea, etxebizitza-blokeren bat hartuko duen gunea, osatzeko bulebar bat egin ahal izango da, eta pasealeku horrek inguru horretan bloke batetik bestera joateko aukera erraztuko du; okertutako igogailua ere egingo da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Adierazi du, esan duen bezala, hau hasierako onespena dela eta, beraz, une honetan onesten bada, jarraian jendeari argibideak emateko epea zabalduko dela; horrek esan nahi du, denbora-tarte horretan, informazioa eskatzeaz gain, edozein herritar edo elkartek bidezkoak iruditzen zaizkion alegazio, kritika eta ekarpenak egin ahal izango dituela; gero, talde politikoek nahiz herritarrek egindako alegazio edo ohar guztiak Informazio Batzordean aztertuko dira eta behin behineko onestea proposatuko da. Behin behineko onesten bada, Eusko Jaurlaritzari eta Aldundiari bidaliko zaie, bidezkoa bada, onets dezaten. Behin betiko onesten bada, proiektua idazteari eta obra burutzeari ekingo zaio.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiurrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Askorik luzatuko ez dela esan du, beste batzuetan erabili izan diren argudioak direla uste du eta. Txorierri auzoan eta herriko auzo guztietan egin beharreko hobekuntza eta azpiegiturek aurrekontu aldetik etxebizitzaren eraikuntzarekin batera finantzatzea baino tratu garrantzitsuagoa merezi dutela esan du. Adierazi du auzo batean zerbait behar denean, gauzak egiteko irtenbide edo modu bakarra etxebizitzaren eraikitzea dela dirudiela, eta horregatik uste du Txorierri auzoan etxebizitza berriak egin aurretik, azpiegiturak hobetuta egon beharko lirakeela; hori dela eta, bere ustez, berriz ere negoziatzen ari direla ematen duen egoera horretan daude, hau da, hobekuntzak egiteko etxebizitza gehiago eraiki behar da, etab.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Lehenengo eta behin esan du zorientzeko moduan daudela, proposatutako plan-aldaketak Txorierri auzoa hobetzeko aukera emango duelako; izan ere, okertutako igogailuak nabarmen hobetuko du herritarrek Bilboko metro-linearekin eta Lamiako eta Txopoeta auzoetako biztanleekin duten lotura; gainera, adierazi du Planaren aldaketak barne hartzen dituen hirigintza-aldaketek ere hobekuntza nabarmena ekarriko dutela auzora, oinezkoentzako zuhaitziari esker. Horrenbestez, bere taldearen ustez aurrerapen garrantzitsua da Txorierriko biztanleen bizi-kalitateari dagokionez, eta horregatik, aurreratu du bere taldearen botoa hasierako onespeneren aldekoa izango dela.

Adierazi du, edonola ere, ezin dela ahaztu Txorierriko biztanleek urte larregi eman dituztela Bilboko metroarekiko eta udalerraren gainerako auzoekiko lotura eskasarekin, urte larregi metro-sare horrekin lotzen dituen berrehun eskailerako blokea igo eta jaisten, eta esan du Eusko Alderdi Jeltzaleak ez duela oso arin jokatu gai horri konponbidea bilatzeko, justu guztiz kontrakoa baizik.

Horren ganean esan du inguruko beste udalerrri batzuek Txorierri auzoaren antzeko arazoak konpontzeko irtenbide mekanikoak jarri dituztela; adibidez, Bilbok eta Getxok igogailu mekanikoak dituztela esan du, okertutako igogailuak, Leioan ezarri nahi den igogailua bezalakoak, alegia. Basaurik, Portugaletek eta Sestaok ere, zailtasun geografikoen ondorioz, beste auzoekin komunikatzeko zailtasunak dituzten auzoetan eskailera mekanikoak ezarri dituztela ere adierazi du. Azken batean, udalerrri horietako biztanleek mekanismo horiek komunikatzeko ematen dituzten erraztasunak dituztela, eta Leioan orain hasi direla bidea egiten eta, zorte pixka batekin, 2007 amaierara arte edo 2008 hasierara arte Txorierri auzoak ez duela okertutako igogailua izango; hau da, nahikoa atzeratuta dabilzala antzeko arazoa duten baina berau konpontzeko irtenbideak aurkitu dituzten udalerrri batzuei dagokienez.

Laburbilduz, bere taldeak uste du gobernu-taldeak udal-kudeaketan duen eraginkortasun faltaren, hau da, udalerrriak dituen arazoak konpontzeko bizitasun faltaren adierazlea dela.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Igogailua jartzearena zorientzeko modukoa dela esan du, baina adierazi du, esan bezala, urte askotako atzerapenarekin datorrela eta Txorierriko biztanleen beharrizana hor dagoela, beraz, EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiurrutia jaunak esan duen bezala, ez direla zigortu behar, ezta hobekuntzak etxebizitzarekin edo etxebizitza gabe egingo direla esan ere.

Horren inguruan, esan du bere taldeak Plana aldatzearen alde bozkatuko duela, igogailua jarri ahal izateko, baina argi utzi nahi izan du alegazioak aurkezteko epean eurek igogailua udal-zergen bidez finantzatu dadin alegatuko dutela, Txorierriko biztanleek, udalerriko gainerako biztanleek bezala, zergak ordaintzen dituztelako. Koska hortxe dagoela adierazi du, eta bere ustez, premiazko beharrizana zela eta hainbat urtetako atzerapenarekin datorrela.

Era berean, eskaera bat egin nahi duela adierazi du, eta alkate jaunari esan dio, Txorierriko auzoko biztanleek, hemendik aurrera, alegatzeko aukera izango dutela esateko hasieran emandako azalpena dela-eta, berari Txorierriko biztanleek, Kultur Aretoan edo bidezkoa iruditzen zaien tokian, planoz osatutako maketa eta beharrezko guztia izatea gustatuko litzaiokeela, auzoa azkenean nola geratuko den zehatz-mehatz ikusteko aukera izan dezaten, hainbat urtetan ez baita aldaketarik egon eta azken urteotan, babes ofizialeko etxebizitza berriei eta proiektu berri honekin aldaketak egongo direlako.

Amaitzeko, adierazi du, gaiarekin zerikusirik ez duen arren, baina bere ustez auzoarekin lotura duenez, berak hainbat aldiz esan duela Hirigintza Batzordean une honetan auzoan egiten ari diren obrek, obra guztiek bezalaxe, eragozpen larregi sortzen dituztela eta batzuk, Udalak ahalegina eginez gero, konpondu ahalko liratekeela, parking erdi kentzeak eragindako aparkaleku-falta, adibidez; izan ere, bere ustez teknikoki dena zilegi da, eta beraz, nola egin ikusi beharko litzateke, "bakailaoaren" egunean gertatu zena berriz gertatu ez dadin saiatzeko. Horren inguruko eskaera alkate jaunari egin zitziola esan du, auzo guztia obretan egonda eta sartu-irtenak egiteko egoera nahiko konplexua dela jakinda, betiko jaia baina, sartu-irtenak direla-eta, auzoari kalte egiten diona egiten jarraitzearena kontuan hartu beharko litzatekeela dio eta.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Lehenengo eta behin, esan du Bizkaian ez dagoela honelako arazorik duen herririk, proposatutako igogailuak ez baitauka parekorik Getxon, Bilbon, Santurtzin, Eibarren ez beste inon, koten arteko aldea oso handia baita.

Bigarrenez, adierazi du gogor lan egin dela eta gaia sakontasunez aztertu dutela, ez baita arazo erraza, eta seguru dago herritarrek ere badakitena.

Ingurumenaren gaineko eraginari dagokion puntua luze aztertu dela esan du, ingurumenaren gaineko eragina alde aurretik zehaztu dela eta Aldundiarekin lan egin dela eta, horretan guztian, zoritxarrez, denbora asko eman dela.

Horren inguruan adierazi du proposatutako azken irtenbidea eta eztabaidagai dena, aipatutako azterketa egin ondoren aurkitu den onena dela, baina horrek ez duela esan nahi etxebizitzak daudelako eraikiko denik, ezta konponbide hori udal-aurrekonturik gabe egingo denik ere; baieztatu du horrela egiten ez bada, sekula egingo ez dela, Udalaren inbertsioetarako urteko aurrekontua bostehun milioi pezeta ingurukoa denez herri osorako, ez baitago dirurik igogailua udal-aurrekontuaren bidez soilik ordaintzeko, eta beraz, Txorierrin igogailua nahi bada, horrela egin beharko dela edo egin ezin izango dela adierazi du, alegazio-fasean norbaitek guztia abalatu duen proposamen zehatzen bat aurkeztu ezean.

Jarraian, PPko bozeramaileari, Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunari, erantzun dio eta, igogailua berandu datorrela esateko egindako adierazpena dela-eta, adierazi du normala dela berak berandu dabiltzala esatea, osoko bilkura guztietan berdina esaten baitu, eta badirudiela politika horrela dela.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Gero, PSE-EE-PSOeko bozeramaileari, Susana González Rómulo andreari, erantzun dio, Auzo Elkartearekin hainbat batzar izan dituztela adierazteko; eman dituzten urratsak azaldu dizkietela esan du, eta gauza bera egingo dela herritarrekin Kultur Aretoaren bidez edo proiektu horri buruzko informazio zuzena emanda; gehitu du bera eta Eneko Arruebarrena, teknikariak eta gaiaren inguruan lanean jardun duten guztiak herritarren esanetara daudela. Era berean, esan du hurrengo udal-aldizkarian atal berezia egongo dela proiektu horren inguruan.

Txorierri auzoko obrak direla-eta, PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreari esan dio zenbait obrek arazoak sortzen dituztela, une honetan bezala, eta adierazi du eragin horiek ahalik eta gehien txikitu behar direla; aipatutako obrei dagokionez, esan du askotan hitz egin duela Elkartearekin eta hobetzeko ahalegina egingo dela. Ondiz auzoan ospatutako jaiak direla-eta, Bakailaoaren festa, besteak beste, azken bi urteetan jauzi kualitatibo nabarmena egon dela esan du zirkulazioaren antolamenduari dagokionez; aurten nahiko ondo atera dela esan du, hobetu daitekeen arren, eragozpenak sortu direla badakielako.

Amaitzeko, esan du proiektu honen zailtasunak (diseinua, ingurumena, aurrekontua, etab.) kontuan izanda, garrantzitsuena gauzatu egingo dutela dela, eta adostasuna badago, askoz hobeto; horri dagokionez, adierazi du ekarpen oro jasotzeko prest daudela, Udalean herritarren ordezkari direnenak, herritarrenak, Elkartearenak, etab., eta irtenbide hoberik badago, eurak proiektua hobetzeko prest daudela.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Beste udalerrri batzuek antzeko arazoentzako irtenbideak aurkitu dituztela esan duenean, bistan denez, Portugaleten, Sestaon, Bilbon edo Getxon hemengo aldapa bera edo zailtasun berberak daudenik esan ez duela zehaztu du; baina han arazoari aurre egin diotela eta arazoa Txorierri auzoan dagoenaren antzekoa dela adierazi du; horregatik esan du udalerrri horiek arazoari aurre egin diotela, gaia aztertu dutela eta konponbidea abian dela, eta hemen oraintxe hasi direla bidea egiten.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Adierazpen laburra egingo duela esan du, punturen bat argitzeko bakarrik. Adierazi du berak ez duela esan gaur aztertzen ari diren proiekturako udal-aurrekonturik egongo ez denik, etxebizitzetaz gain, beste aukera batzuk ere aztertu beharko lirakeela baizik. Hori dela eta, adierazi du ez zaiola gustatu alkate jaunaren adierazpena, horrela egiten ez bada, egingo ez dela zioena, bera Hirigintzako teknikaria ez bada ere, Txorierriko irisgarritasuna hobetzeko, seguruena, aukera bat baino gehiago egongo dela uste baitu; beraz, aukera horiek aztertzea eta onena aukeratzea proposatu du. Horren inguruan adierazi du, Txorierri auzorako igogailua nahi den galdetzean, erantzuna "jakina" izango dela, auzo horretakoek hainbat urtetan berrehun eskaileratik gora igo behar izan baituzte egunean zenbait aldiz, baina etxeek arazoizko prezioa izatea ere nahi dutela, beraz, alegazioak aurkezteko epean zeintzuk aukera dauden ikusi eta aztertzea proposatu du, eta ez esatea horrela egingo da edo ez da egingo.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Igogailua oso arin eta udal-aurrekontuarekin egitea gustatuko litzaiokeela esan du eta, gainera, oso merkea izatea, baina gai hori sakon aztertu dutela eta bere ustez horrela egin behar dela, beste inork kontrakoa erakutsi ezean. Hori dela eta, irtenbide hoberik aurkituz gero, proiektua hobetzeko eta irtenbiderik egokiena hartzeko prest daudela errepikatu du, baina ezin dela esan "proiektu hau ez zait gustatzen", berari gauza asko gustatzen ez baitzaizkio, baina errealitatea beste bat dela eta horixe dela kontua: nola egin aurre errealitateari eta arazoa nola konpondu.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Susana González Rómulo, PSE-EE-PSOeko bozeramaileak, bera udal-teknikaria ez dela esan duela adierazi du, eta egia esan, osoko bilkuran dauden zinegotzien artean inor ere ez dela. Hori dela eta, esan du adierazpenek bera bereziki nahigabetu dutela, EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak esandakoak izan ezik, norbaitek benetan min hartuko badu, horiek proiektuan parte hartu duten bi udal-teknikariak izango direlako, Angel Pérez eta Jon Bereciartua; Udalbatzako kideek haiengan konfiantza dutenez, hitz egin behar denean haiek hitz egin beharko luketela esan du, eta benetan, prozesu horretan maila handiagoa espero duela, azkenean kamerek inor itsutu ez dezaten eta gauzatu daitekeen zerbait pikutara joan ez dadin. Amaitzeko, adierazi du benetan nahigabetuta dagoela, badakielako bihar, edo akta irakurtzen dutenean, horixe esango dutela, ez baitute horrelakorik espero.

PPko Xabier Olabarrieta Arnáiz jaunak honakoa adierazi du:

Lehen alkateordeari esan nahi izan dio bere taldearen kritikak ez nahasteko, talde politikoari zuzenduta daudelako eta ez daukatelako zerikusirik udal-teknikariek egindako lan bikainarekin. Horrenbestez, eztabaida politiko honetan udal-teknikariak ez sartzeko eskatu dio.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

PPko bozeramaileak esandakoaren ildo beretik jardungo duela adierazi du. Horrela bada, esan du gauza bat euren iritzia direla eta beste bat, behintzat berak, bai Angeli eta bai Joni dien estimua eta haiekiko hartu-emana; adierazi du Jon Bereciartuarekin, hain zuzen, denbora asko eta momentu asko pasatu dituela Txorierriko gaiaren inguruan hizketan eta EAJ-PNVko bozeramaileak badakielako; beraz, ez du uste egoera dramatismora eramateko modukoa denik.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Egoera horretan denbora arinen edo gehien hitz egiten duenaren aldekoa ez denez, guztiek izango dutela zuzenean eurekin hitz egiteko aukera esan du, edozein batzordetan; adierazi du uste osoa duela teknikariek horri buruz hitz egingo dietela.

Eako Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa adierazi du:

EA taldearen ordezkaria eta garapen jasangarriari eusteko arduraduna izaki, esan du berak gutxi gorabehera hurbiletik ikusi duen lana oso orekatua eta gizarte aldetik beharrian horiek ase behar dituzten pertsonen zuzendua iruditu zaiola, eta planteamendu ekonomikoa ere oso ondo egokituta dagoela uste du. Gainera, adierazi du ez dela gune edo arlo horren gainean bakarrik ari, igogailuak instalatzeari dagokionez soilik, baita jarraian aztertuko diren puntuaren inguruan ere: hirigintza 42-B arloan, Tellerian, etab.; bere ustez, horiek guztiak gizarte aldetik orekatuta daude. Baieztatu du Udalak gastatu dezakeena arretaz gastatuko duela, eta alde batean ipintzen bada, beste batetik kendu behar dela, eta beraz, berak Udalaren lanaren alde egiten duela.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Eztabaida amaitu dela iruditzen zaiola esan du, eta edonola ere, laster Txorierriko biztanleei bigarren berri positiboa emango zaiela espero duela; izan ere, bere ustez, Txorierriko irigarritasunaren alde proposamen zehatzekin lan egin behar da, eta beharbada, denbora gutxi barru, beste proposamen bat egon daiteke eta beste ezusteko bat ere bai.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hemeretzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkarietak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzietak, PPko lau zinegotzietak eta EAKo ordezkariarena; abstentzio bi ere egon dira, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzietak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** HAPOren zati baten aldaketa hasieran **oneste**a, 33. sektorearen (Pikueta) eta 13. arloaren (Txorierri) artean sartzeko moduko hiri-lotura irekitzeko, 45. arloa sortzearen bitartez, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoari jarraituz.

5.- HAPOKO ZATI BATEN ALDAKETA BEHIN-BEHINEKOZ ONESTEA. ALDAKETA HORREN BIDEZ DAUDEN ERAIKINETAN IGOGAILUAK INSTALATZEKO AUKERA ARAUTZEN DA.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko irailaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 523/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko irailaren 14an hartu zuen 127 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute Osoko bilkurak 2005-07-28ko batzarrean hartutako 4. erabakiaren bitartez, hasieran onetsi zela Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko espedientea, dauden eraikinetan igogailuak instalatzeko aukera arautzeari dagokionez.

Horretarako ezarritako epean, inork ez du alegaziorik aurkeztu eta, horrenbestez, behin-behinekoz onetsi behar da orain.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak adierazi du osoko bilkuraren erabaki egokiaren bitartez gauzatu behar dela HAPOren zati baten aldaketaren onespena, ondoren Bizkaiko Foru Aldundiari bidali eta horrek behin betiko onetsi dezan. Izan ere, horixe agintzen dute Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) eta 22.2.c) artikuluek eta Eusko Legebiltzarraren 5/1998 Legearen 3. artikulua, abuztuaren 25eko 3.288/1978 Errege Dekretuak onetsitako Lurraren Araudiari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen testu bateginaren 41. eta 49. artikuluekin bat etorriz.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, behin-behinekoz onetsi du HAPOKo zati baten aldaketa, dauden eraikinetan igogailuak instalatzeko aukera arautzeari dagokionez; halaber, Foru Aldundiari bidaliko zaio espedientea, behin betiko onesteko. Horrenbestez, berretsi egingo da Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpena.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

6.- LEIOAKO UDALAK ETA HAPOko 42-B ARLOAREN (TELLERIA HUTSIK) KUDEAKETAN PARTE HARTU NAHI DUTEN SUSTATZAILEEK SINATU BEHARREKO HIRIGINTZAKO HITZARMENA ONESTEA:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko irailaren 27an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 569/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko irailaren 21ean hartu zuen 148 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzordeko buruak HAPOko 42-B arloaren (Telleria hutsik) kudeaketan parte hartu nahi duten sustatzaileekin egindako elkarrizketen ondorioaren berri eman du. Oraintxe eskatuko da aipatutako arlo hori behin-behinekoz onestea.

Egoitza erabilerako ondare bihur daitekeen hirigintzako aprobetxamendua handitu denez, egokitzat jo da, 7-C (San Bartolome Historikoa) arloa sortzeko kudeaketa egin zuten enpresa sustatzaileekin erabilitako irizpide berberari jarraituta, guneko hirigune historikoa (oinezkoentzako gunea eta ermitaren inguruko kultur etxea) birmoldatzeko urbanizazio-kargak handitzea.

Hori dela eta, akordio-hastapena lortu da 42-B arloaren (Telleria hutsik) garapenean parte hartu nahi duten sustatzaileekin, arloari berez lotutako urbanizazioaz gain, auzoaren hirigune historikoa birmoldatzeko obretara finantziazioa ere ezartzeko. Horretarako, 622.531,86 euroko zenbatekoa kalkulatu da, berriro zatitzeko proiektua onetsitakoan eman beharko dela. Era berean, modu objektiboan hartu da aprobetxamenduaren % 10 urbanizazio kargarik gabe lagatzea, hau da, 205.782,04 euroko zenbatekoan. Zenbateko horiek HAPOko 7-C arloari (San Bartolome Historikoa) buruzko espedientearen erabilitako irizpide berberak aplikatuztik ondorioztatu dira; horiek, behar bezala egiaztatu zituen Leioako Udaletik kanpoko aholkularitza teknikoak.

Halaber, modu berean arautu da hitzarmenean lehenengo eraiki nahi den egoitzazko lehenengo eraikinerako obretako lizentzia, hirugarren adineko egoitza hartuko duen eraikinaren obretako lizentziarekin batera edo horren ondoren eman beharko dela. Obrak burutuko direla bermatu beharko da eta, horretarako, finantza-bermeak, eraikuntza-kontratuak edo udalak beharrezkotzat hartzen duen beste edozein agiri aurkeztu beharko dira.

Amaitzeko, aparteko urbanizazio-kargari dagokion zenbatekoa abalatu beharko da, guztiz gauzatu arte.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak udalaren osoko bilkurak honako erabakiak hartzea komeni dela iritzi du:

- Onetsi egingo da Leioako Udalak eta HAPOko 42-B arloaren (Telleria hutsik) kudeaketan parte hartu nahi duten sustatzaileek ados daudela gauzatutako hitzarmena.
- Alkate-udalburua ahaldunduko da Hitzarmena bera eta bertatik eratorritako agiri publiko eta pribatu guztiak gauzatzeko.
- 42-B (Telleria hutsik) arloa sortzeari buruzko Plangintzaren aldaketa behin-behinekoz onetsi ahal izateko, nahitaezkoa izango da Hitzarmen hau gauzatzea.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Arlo hori zerbitzu-azpiegituretarako pentsatuta dagoela edo hala ematen zuela esan du, baina Planean anbiguotasun bat egon daitekeela; beraz, zerbait mistoa egiteko interesa duen sustatzailea dagoela kontuan izanda, esan du argi berdea eman zaiola zerbait mistoa egiteari: zaharren egoitza, etxebizitzak eta haurtzaindegia. Adierazi du azken proposamenean haurtzaindegia ere alde batera utzi dela, eta orduan, azpiegituretarako zen gunean etxebizitzak egingo direla eta, berriro ere, berak askotan “neurriara egindako hirigintza” deitzen duena egiten ari direla: zerbait egiteko interes handia duen sustatzailea dago eta orduan egin egiten da. Zerbitzu-azpiegituretarako izan behar zuen gunea orain etxebizitzak eta adinekoren egoitza egiteko izango da.

Amaitzeko, esan du hurrengo puntuarekin batera, oker ez badabil, etxebizitzak eta egoitza ere aldi berean egingo direla, etxebizitzak egin bai baina egoitza bazter batera utzi ez dadin.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Bere talde politikoa abstenitu egingo dela esan du eta gai horren inguruan aurreko osoko bilkuretan egin dutenari eutsiko diotela, beraz, ez duela beti gauza bera esango.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Operazio ederra dela esan du, ezkerreko alderdien operazioa, bere alderdiarekin batera. Horrela bada, EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia adierazi dio Bilbon Ezker Batuak proposatutakoaren antzeko operazioa dela; izan ere, Gardoki kalean Iberdrolak duen eraikina berriz kalifikatu da, bertan etxebizitzak egiteko, eta Iberdrola Abandoibarrako Dorrera lekuz aldatzea proposatu da; Leioan, gainera, inbertsio publikorako eta herria ekipatzeko ehun milioi lortu direla adierazi du.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamabost boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PPko lau zinegotzienak eta EAKo ordezkariarena; kontrako boto bi, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak; lau abstentzio ere egon dira, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** Leioako Udalak eta HAPOk 42-B arloaren (Telleria hutsik) kudeaketan parte hartu nahi duten sustatzaileek sinatutako hitzarmena. Ezinbesteko baldintza izango da 42-B (Telleria hutsik) arloa sortzeko Plangintzaren aldaketa behin-behinekoz onetsi ahal izateko. Alkate-udalburua ahaldunduko da Hitzarmena bera eta bertatik eratorritako agiri publiko eta pribatu guztiak gauzatzeko.

7.- HAPOk PLAN OROKORRAREN ZATI BATEN ALDAKETA HASIERAN ONESTEA, 42. ARLOAN (TELLERIA). Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko irailaren 27an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 570/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko irailaren 21ean hartu zuen 149 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute osoko bilkurak 2005-02-23ko batzarrean hartutako 3. erabakiaren bitartez, hasieran onetsi zela Leioako HAPOn zati baten aldaketa, 42. arloari (Telleria) buruzkoa, beste arlo bitan bereizteko: 42-A (Telleria finkatua), gaur egun dauden eraikinak



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

hartuko dituen; eta 42-B (Telleria hutsik), eraikitako 3.134 m²-ko komunitate-egoitza eta eraikitako 2.840 m²-ko etxebizitza-multzoa eraikitze aukera emango duena. Etxebizitza multzoa eraikitze obretako lizentzia eman ahal izateko, hirugarren adineko pertsonentzako egoitzaren obrak hasi beharko dira. Era berean adierazi da jardun duten sustatzaileek *“bere garaian zehaztuko den zenbatekoa izango duen banku-abala eman beharko dutela, aipatutako egoitza amaitu eta funtzionatzen hasiko dela bermatzeko”*.

Jendaurrean azaltzeko tramiteak burututakoan, horretarako ezarritako epean alegazio bi aurkeztu dira. Udaleko Bulego Teknikoak honako txostena egin du horiek aztertzean:

- **2005-03-31** (sarrera-erregistroko zenbakia: 2.304). Monica Rodríguez Alvarez andreak, Etxezi S.L. merkataritza-etxearen eta Miguel Angel Jáuregui Viteri jaunaren izen eta ordezkartze jardunez, haurtzaindegi erabilera ezartzeko beharra kentzeko eskatu du. Bere ustez gehiegizkoa da hirugarren adineko pertsonentzako egoitza eraikiko dela bermatzeko bankuko abala eskatzea obretako udal lizentzia daukatenean, eta gehienezko etxebizitza kopurua 27ra handitzea eskatu du, eraikigarritasuna txikitu gabe.

Udaleko Bulego Teknikoak txostenean adierazi du ados dagoela haurtzaindegi erabilera kentzearekin eta gehienezko etxebizitza kopurua handitzearekin, eraikigarritasuna handitzen ez delako. Abalari dagokionez, aldiz, mantendu egin du finantza-bermeak, eraikuntza-kontratuak edo udalak beharrezkotzat hartzen duen beste edozein agiri eman beharko direla hirugarren adineko pertsonentzako egoitzarako obrak burutuko direla bermatzeko.

- **2005-04-01** (sarrera-erregistroko zenbakia. 2.312). Jesús Maria Barrenechea Madarieta eta Javier Calzada Alvarez jaunek, 42-B arloaren mugaketak eragindako garajea ordeztzeko eskatu dute eta, era berean, 42-B arloan sartutako lur-zatiaren azalera 42-A arloaren barruan zenbatu ahal izatea.

Udaleko Bulego Teknikoak txostena egin zuen 2005eko apirilaren 25ean. Bertan adierazi zuen garajea berriro zatitzeko proiektuaren fasean ordeztu behar dela. Azalera bat arlo ezberdin bitan zenbatzeari dagokionez, Lurzoruaren gaineko Legeak ez du horrelakorik onartzen; beraz, 1. higiezina hartzen duen lur-zatia, 42-B arloari gehitu zaion lur-zatia bereizitakoan, 42-A arloaren (Telleria finkatua) ordenantzak adierazi beharko duen hirigintzako araubidearen pean geratuko da.

Horrenbestez, mantendu egingo da espedientean adierazitako aurreikuspena.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak udalaren osoko bilkurak honako jarduerak onestea komeni dela iritzi du:

- Behin-behinekoz onetsiko da Leioako HAPOren zati baten aldaketa, 42. arloari (Telleria) dagokionez. Beste arlo bi sortuko dira horrela: 42-A (Telleria finkatua) eta 42-B (Telleria hutsik).
- Aurkeztutako alegazioen edukia ebatziko da, Udaleko Bulego Teknikoak emandako txostenaren arabera.
- Agindeia egingo zaie arloaren hirigintzako garapena burutu nahi duten sustatzaileei, testu bategina aurkez dezaten, Bizkaiko Foru Aldundiari bidali eta behin betiko onets dadin.
- Behin-behinekoz onetsi ahal izateko, kudeaketa irizpideak aurreratzen dituen hirigintzako hitzarmena gauzatu beharko da; gai hori aurreko irizpenean eztabaidatu da.

Irizpen hau onetsi egin da, baina EB-Berdeak taldeko ordezkariak kontrako botoa eman du, hasieran onesteari buruzko eztabaidan azaldu zituen arrazoi berberak oinarri hartuta.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Gai hau aurreko puntuari lotuta dagoela esan du, haren ondorioa dela, hau da, Plana aldatzea.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiurrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Aurreko puntuan esandakoa errepikatu besterik egingo ez duela esan du, baina berak puntuak beste ordena batean ipiniko lituzkeela; horrela, lehenengo eta behin Plana aldatuko lukeela eta gero sustatzaileekin hitzarmena egingo zuela, kontua sustatzaileen eskuetan dagoela hainbeste igarri ez dadin.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Abokatuek horri “egintza-batasuna” esaten diotela adierazi du, hau da, gai biak aldi berean onestea; gizakiek iraganean, orainaldian eta etorkizunean lan egiten dutela esan du eta horregatik bi alditan egiten dela, baina eztabaida eta bozketa aldi berean egin ahal izan direla.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamabost boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PPko lau zinegotziak eta EAKo ordezkariarena; kontrako boto bi, EB-Berdeak taldeko bi zinegotziak; lau abstentzio ere egon dira, PSE-EE-PSOeko zinegotziak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** Leioako HAPOn zati baten aldaketa, 42. arloari (Telleria) buruzkoa, beste arlo sortuz: 42-A (Telleria finkatua) eta 42-B (Telleria hutsik). Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoari jarraituz egingo da hori, ondoren Foru Aldundiko Hirigintza Sailari bidaltzeko, behin betiko onetsi dezan.

8.- MENDIBILE GUNEAN UDAL ONDASUNEN ADMINISTRAZIO MUGAKETARAKO ESPEDIENTEA HASTEA.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko irailaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 524/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko irailaren 14an hartu zuen 128 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzordeko buruak Mendibide gunean, hain zuzen ere HAPOk 23. arloaren goiko mugan, sortzen ari den problematikaren berri eman du; izan ere, leku horren udal mugak ez dira modu baketsuan onartu.

Hori dela eta, egokitzen hartu da administrazio mugaketarako espedientea gauzatzea, ekainaren 13ko 1.372/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundearen Ondasunen Araudiko 58. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak udalaren osoko bilkuraren erabakiaren bitartez honako jarduerak onestea komeni dela iritzi du:

- Udal ondasunen administrazio mugaketarako espedienteak hasiko da Mendibile gunean.
- Alkate-udalburua ahaldunduko da espedientetik eratorritako tramite guztiak betetzeko eta beharrezko agiri publiko zein pribatu guztiak gauzatzeko.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez erabaki du** Mendibile gunean udal ondasunen administrazio mugaketarako espedienteak hastea. Horrela bada, Alkate-udalburua ahaldunduko da espedientetik eratorritako agiri publiko zein pribatu guztiak gauzatzeko eta, ondorioz, berretsi egingo da Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpena.

9.- "ESTARTETXE KALEAN LOKALA ATONTZEA GIZARTE ZERBITZUEN BULEGOETARAKO" IZENEN OBRAK DIRELA-ETA UDAL BULEGO TEKNIKOAK IDATZI DUEN PROIEKTUARI BURUZKO ALKATETZAREN DEKRETUA BERRESTEA.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko irailaren 20an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 526/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko irailaren 14an hartu zuen 132 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Premiaz emandako abuztuaren 17ko 600/05-O.T. dekretuaren edukia irakurri da. Honakoa dio, hitzez hitz:

"Ondorioz, Udal Bulego Teknikoak, Infotop Ingenieria Topografica merkataritza-etxearen laguntza teknikoarekin, proiektua idatzi du eta bere aurrekontua 250.507,36 eurokoa da (BEZ barne).

Behar bezala baloratu da udal zerbitzuek ahalik eta lasterren lokal egokiak izan ditzaten tramitazioa sustatu behar dela. Abuztuan osoko bilkurarik egingo ez dela kontuan hartuta, honen bitartez honakoa

XEDATU DUT:

LEHENENGOA.- Onetsi egingo da Dekretu honen azalpenean aipatu den eta Udal Bulego Teknikoak, Infotop Ingenieria Topografica merkataritza-etxearen laguntza teknikoarekin, idatzi duen proiektuaren edukia. Zenbatekoa: 250.507,36 euro (BEZ barne).

BIGARRENA.- 250.507,36 euroko zenbatekoa gordailatuko da, aplikagarri zaion aurrekontu-partidaren pentzura.

HIRUGARRENA.- Udal Bulego Teknikoak baldintza-agiria idatzi beharko du, berehala has dadin adjudikazio prozedura, Lehiaketa Irekiaren bitartez.

LAUGARRENA.- Udalaren Osoko Bilkurak egingo duen hurrengo bileran dekretu honen edukia berretsiko da"

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordea jakinaren gainean eta ados geratu da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

Jarraian jakinarazi da gordailaketa egoki eta nahikoa dagoela “Estartetxe kalean lokala atontzea Gizarte Zerbitzuen bulegoetarako” izeneko obretarako. 250.507,36 euroko zenbatekoa du eta 2005eko irailaren 22an egin zen.

Jarraian jakinarazi da gordailaketa egoki eta nahikoa dagoela “Estartetxe kalean lokala atontzea Gizarte Zerbitzuen bulegoetarako” izeneko obretarako. 250.507,36 euroko zenbatekoa du eta 2005eko irailaren 22an egin zen.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Lokala egokitzeko asmoa dela-eta, guztiak zoriondu nahi dituela esan du, Gizarte Zerbitzuak, lehen ere udalerraren erdialdean zeuden arren, orain ere erdialdean eta, gainera, baldintza hobeetan daudelako. Horri dagokionez, esan du ez dakiela egungo lokalekin zer egin pentsatu den; talde sozialistak gizarte gaietarako erabiltzea proposatzen duela esan du eta horrela bada, berriz zorionak eman behar dituela, batez ere Ainara Urbietari, Osasun Batzordeko buruari.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Gizarte Zerbitzuen egungo lokala Gizarte Hezkuntzazko Esku-hartze taldearentzat izango dela esan du.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak adierazitakoa proposamena dela esan du eta Osasuneko Informazio Batzordean aztertuko dela; Ainara Urbietari andreak asko balio duela eta, gainera, errespetua ematen duela gaineratu du.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez erabaki du** Alkatetza-Udalburutzak 2005eko abuztuaren 17an eman zuen 600/05-O.T. dekretua termino berberetan berrestea, Estartetxe kalean lokala atontzeko, Gizarte Zerbitzuen bulegoetarako.

10.- KULTUR ZENTROA ERAIKITZEKO OBREN LIKIDAZIOA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko irailaren 27an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 568/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko irailaren 21ean hartu zuen 147 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzordeko buruak jakinarazi du beharrezkoa dela Kultur Zentroa eraikitzeke obren likidazioa egitea. Kontuan hartzeko moduko aurrekontua duen obra denez, interesgarri iritzi zaio bertako teknikari zuzendariei batzar-aretoa etor daitezzen eskatzeari, zuzenean azal ditzaten lanetako gorabeherak eta likidazioaren ondoriozko zenbatekoak.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Orduan Ramón Sanabria jauna eta Vidal García jauna sartu dira batzar-aretora, obretako zuzendariak diren arkitektoa eta aparejadorea, eta obretan eragina izan duten hainbat arazotxo azaldu dituzte. Era berean, likidazioa eratzen duten partiden edukia azaldu dute. Lanak egin bitartean enpresa adjudikaziodunarekin harreman bikaina izan dutela nabarmendu dute, eta gertatu diren desbiderakoak ohikoak direla horrelako obretan. Hain zuzen ere, gehikuntza hori ez da iristen adjudikatutako zenbatekoen % 10era.

Elkarrizketa egin da zinegotzien eta teknikarien artean, udal ordezkarien zalantzak eta galderak argitzeko.

Azkenean, Ramón Sanabria eta Vidal García jaunak aretotik irten dira, bertara etortzeko deitzeagatik zinegotziei eskerrak eman ondoren. Horrela bada, udaleko Zerbitzu Teknikoek obren gehikuntzari buruzko kontabilitateko koadroa zehaztu dute, enpresaren eta zuzendaritzaren atean behar bezala itunduta, eta likidazioa egin da (BEZ barne):

KULTUR ZENTROA (HASIERAKO PROIEKTUA)		
ADJUDIKATUTAKO ZENBATEKOA	LIKIDATZEKO PROPOSATU DEN ZENBATEKOA	ALDEA
7.848.441,01 €	8.575.890,84 €	727.449,83 €

KULTUR ZENTROA (OSAGARRIEN PROIEKTUA)		
ADJUDIKATUTAKO ZENBATEKOA	LIKIDATZEKO PROPOSATU DEN ZENBATEKOA	ALDEA
1.448.954,53 €	1.593.587,34 €	144.632,81 €

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak udalaren osoko bilkuraren beharrezko erabakiaren bitartez honako erabakiak hartzea komeni dela iritzi du:

- Onetsi egingo dira obren neurketa orokorra eta azken ziurtagiria, azaldu berri diren kontabilitateko koadroetan azaldutako zenbatekoetan, obren zuzendaritzak eta enpresa kontratistak behar bezala itunduta dutela. Izan ere, horixe ezartzen du Herri Administrazioetako Kontratuen Legeari buruzko Araudi Nagusia onetsi zuen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 166. artikulua.

- Likidazioaren gehiegizkoa ordaintzeko, 872.082,64 euro (727.449,83 € + 144.632,81 €) gordailutako dira udal aurrekontuetan, aplikagarri zaion aurrekontu-partidaren pentzura.

Jarraian jakinarazi da gordailaketa egoki eta nahikoa dagoela Kultur Zentroa eraikitzeko obren likidazioaren zenbateko handiagoa ordaintzeko. 872.082,64 euroko zenbatekoa du eta 2005eko irailaren 22an egin zen.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiorrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Hirigintzako Informazio Batzordean esandakoa errepikatu nahi duela adierazi du, aktan ez baitzen oso ondo jaso; hau da, egindako aldateten zenbatekoa handia izango dela esan du, muga normalean barruan dagoela esaten dieten arren, eta, beraz, sinestu egin beharko dela.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez erabaki du** Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpena berrestea, termino berberetan.

11.- 2006. URTERAKO HERRIKO JAIA ZEHAZTEA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko irailaren 27an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 593/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko irailaren 20an hartutako 89. irizpenak honakoa dio:

Uztailaren 5eko 134/2005 Dekretuaren 2. artikulua dio 2006. urtean egun bi jaiegunak direla, tokiko gai gisa, ordainduta eta orduok berreskuratu behar izan gabe. Jaiegunok Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Lurralde Ordezkaritzek ezarriko dituzte, udaletako osoko bilkurek proposatuta. Udalek euren proposamenak egin eta irailaren 30a baino lehen tokiaren arabera dagokien Lurralde Ordezkaritzara bidali beharko dutela adierazten da bertan.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2006ko ekainaren 24a, larunbata, proposatu du Leioako herriko jaia izateko, San Joan eguna delako. Bada, irizpen hau Udalaren osoko bilkurak aztertzeke ipini beharko da.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Aurkeztutako proposamena San Joan egunari buruzkoa den galdetu du eta alkate jaunak baietz erantzun dio. Jarraian adierazi du herriko jaien izaera apur bat aldatu beharko litzatekeela, historikoak eta ez hain historikoak diren zenbait pertsonaiaren ekitaldiak baino askoz gauza gehiago ospatzeko dagoela kontuan izanda.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Proposamenen bat badu, hurrengo urterako egiteko esan dio, aurrean Barne Erregimeneko Informazio Batzordearen proposamena onartuko delako.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak aho batez erabaki du 2006ko ekainaren 24a, larunbata, ezartzea 2006. urterako herriko jaia izateko, San Joan eguna delako. Erabaki hau Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Lurralde Ordezkaritzari bidaliko zaio, jakin dezan eta ondore egokiak izan ditzan.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

12.- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN TXOSTENA, UDALAREN LANPOSTUEN ZERRENDA (ULZ) ALDATZEARI BURUZKOA, 2005EKO UZTAILAREN 28KO OSOKO BILKURAN ONETSITAKOAREN ARABERA:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko irailaren 27an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 596/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko irailaren 20an hartutako 93. irizpenak honakoa dio:

Udalaren osoko bilkurak, uztailaren 28an egindako bileran, ondokoa adierazten duen Alkatetza-Udalburutzaren ebazpena berretsi zuen:

“Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 19an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 486/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko uztailaren 12an hartu zuen 78 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzordeari jakinarazi zaio, iragan uztailaren 5ean, Alkatetzak eta Eneko Arruebarrena Elizondo eta Javier Bidea Molinillo alkateordeek, Batzorde honetako idazkariarekin batera, batzarra izan zutela udal honetako ELA eta LAB sindikatueta langileen ordezkariekin. Batzar horren deialdia langileen ordezkari Lanpostuen Zerrenda aldatzeko proposamena helaraztea zen. Hona hemen aldaketa, eskema gisa:

- **LOREZAINNTZA**

Gaur egungo Lanpostuen Zerrendak honako lanpostuak aurreikusten ditu:

- Lorezaintza taldeko buru 1.
- Lorezain ofizial 1.
- 6 lorezain peoi espezialista.

Alkatetzaren proposamenarekin, honakoa lortu nahi da:

- Lorezaintzako langile eta zerbitzuen ikuskatzaile 1.
- Lorezaintza taldeko buru 1.
- 6 lorezain ofizial.

- **PINTURA**

Honakoa da gaur egungo Lanpostuen Zerrendaren konfigurazioa:

- Pintore ofizial 1.
- 2 pintore peoi espezialista.

Alkatetzaren proposamenarekin, honako konfigurazioa lortu nahi da:

- Pintura taldeko buru 1.
- Pintore ofizial 2.

- **KULTURA**

- Liburutegiko laguntzaile 1.

- **HIRIGINTZA**

- Hirigintzako ANT 1.

Batzarrean aztertutakoa biltzen duen agirian, aldaketa honen arrazoiak azaltzen dira. Bestalde, ELA sindikatuaren adostasuna du eta LAB sindikatuak ez du inolako eragozpenik azaldu, lanpostuak gehitu eta sortzen direlako.

EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunak, ordezkarietza sindikalarekiko bilerara joan den zinegotzia den aldetik, Batzordeari azaldu dizkio proposamenaren xehetasunak. Lorezaintza eta Pintura Atalei dagokienean, sortu beharreko lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak ofizial eta peoien lanpostuek gaur egun dituztenak izan beharko liritekeela gehitu du. Lorezaintzako langile eta zerbitzuen ikuskatzaile, Hirigintza Diziplinako Administrazio Nagusiko teknikari eta Liburutegiko laguntzailearen lanpostuei dagokienez, lanpostuen alde ezberdinak aktari erantsitako eranskinean zehaztutakoak izango dira.

EB-BERDEAK taldeko Rubén Belandía Fradejas jaunak adierazi du proposamenarekin ados dagoela, baina badaki Udaleko administrari laguntzaileek idazkia bidali dutela, antzeko jarduera bat buru dadin administrarien lanpostuetan sartzea barne sustapenaren bidez errazteko asmoz.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunak aipatu du administrari laguntzaileen asmoa zentzuzkoa izan daitekeela eta ezin izan dela aztertu, goizean izan dute horren berri eta.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak honako irizpena eman du:

1.- Onetsi egingo da Udaleko Lanpostuen Zerrenda, aktaren eranskinean azaldu diren terminoetan. Berau, hala ere, udalaren osoko bilkurak aztertzeko ipiniko da egingo duen hurrengo batzarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikulua arabera. Ondoren, aldaketa eta dagozkion agiriak bidaliko zaizkio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.5 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 19. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2.- Aztertu egingo da administrari laguntzaileek aurkeztutako idazkia (sarrera-erregistroko zk.: 4668/05), ondoren horren gaineko irizpena emateko.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da”.

Batzordeari jakinarazi zaio onetsitako aldaketan hutsunea dagoela, liburategiko laguntzaileak bi izan behar direlako, eta ez bat.

Bestalde, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bidalitako txostenaren berri eman da, bileran dauden Talde Politikoetako ordezkariari kopia bana eman zaiela.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak honako irizpena eman du:

1.- Gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da, uztailaren 28ko bileran onetsitako Lanpostuen Zerrendaren aldaketari jarraiki berresteko eta espedientearen lanpostu bakoitzerako agertzen diren zereginak errespetatuta, hurrengo atalean aipatutakoa izan ezik:

2.- Liburategiko laguntzailearen beste lanpostu bat gehituko da, uztailaren 28ko erabakia oinarri hartuta sortu den lanpostuaren baldintza eta betekizun berberak izango dituen.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Barne Araubideko Informazio Batzordeak Lanpostuen Zerrendaren aldaketari buruz adierazitakoa onestea **erabaki du**.

13.- KREDITUAK ALDATZEKO 1/2005 ESPEDIENTEA, UDAL AURREKONTUKO KREDITUAK GEHITZEAREN BIDEZ:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko irailaren 27an egindako bileran onetsi zuen 143/2005 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Berezi honi kredituak aldatzeko espediente bati buruz (mota: Diruzaintzako gerakin likidoaren kargurako kreditu-gehirria) egindako proposamena aztertu da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikulua eta aurrekontuak betearazteko udal arauaren 4.f) oinarriak xedatutakoari jarraiki, kreditu-gehigarriak modu hauetara finantza daitezke:

- a Diruzaintzako gerakin likidoaren kargura.
- b Benetan bildutako diru-sarrera berri edo handiagoen bidez.
- c Aurrekontuko beste partida batzuen kreditua deuseztatuz edo horri baja emanez.

Hona hemen gehikuntzaren zenbatekoa eta finantzazio modua azalduta:

KREDITU-GEHIGARRIA

AURREKONTU PARTIDA	IZENDAPENA	GEHITU BEHARREKO ZENBATEKOA
00100//11110/23100	Joan-etorrietarako ordainak	3.000,00
00200/61110/62900	Kontu-hartzaitzaren material inbentariagarria	2.000,00
00500/4201/6290000	Altzaga ikastolaren material inbentariagarria	700,00 €
00600/12210/2269000	Bake Epaitegiaren gastuak	9.000,00 €
00600/12210/22701	Garbiketa gastuak	2.530,00 €
00600/31360/4800800	Pobreziaren aurka borrokatzeko laguntzak	50.293,46 €
00700/51110/7710000	Komunitateak zaharberritzeko lanak	24.835,14 €
00900/45050/6290000	San Bartolomeko Kultur Aretoaren material inbentariagarria	1.453,00 €
0100/91140/2269900	Zehaztugabeak	12.969,35 €
01000/46030/2270100	Sarriena kiroldegia garbitu eta mantentzea	131.596,24 €
GUZTIRA		238.377,21 €

FINANTZIAZIOA

AURREKONTUKO KONTZEPTUA	IZENDAPENA	ERABILITAKO ZENBATEKOA
87001	Gerakinak sartzea	238.377,21 €

Udalaren osoko bilkurari dagokio espediente hau onestea, aurrekontuak betearazteko udal arauaren xedatutakoaren arabera.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Honakoaren aldeko irizpena emango da: kredituak aldatzeko 1/2005 espedientea (mota: udal aurrekontuko kreditu-gehigarria), irizpen honetan aipatutakoa, hain zuzen ere.
2. Kredituak aldatzeko espedientea onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost egunez, eta horretarako horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 1/2005 espedientea (mota: kreditu-gehigarria) **onestea erabaki du**, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean adierazten den eran.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

14.- EZKER BATUA BERDEAK TALDEAREN MOZIOA, ATZERIKO PERTSONEN EGOERA JURIDIKOA NORMALIZATZEKO PROZESUARI BURUZKOA, URTARRILAREN 11KO 4/2000 LEGE ORGANIKOAREN ARAUDIA ONETSI ZUEN 2393/2004 ERREGE DEKRETUAN AURREIKUSITAKOAREN ARABERA.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko irailaren 27an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 589/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko irailaren 20an hartutako 82. irizpenak honakoa dio:

Ezker Batua-Berdeak udal taldeak idazkia aurkeztu du uztailaren 14an (sarrera-erregistroko zenbakia: 4736). Hona hemen hitzez hitz dioena:

“MOCIÓN de EZKER BATUA BERDEAK relativa al proceso de normalización de la situación jurídica de las personas extranjeras previsto en el RD 2393/2004, por el que se aprueba el Reglamento de la LO 4/2000, de 11 de enero

JUSTIFICACIÓN

Como es sabido, el proceso de normalización de la situación jurídica de las personas extranjeras previsto en el RD 2393/2004, de 30 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de la LO 4/2000, de 11 de enero, finalizó el pasado 7 de mayo. Este proceso, iniciado con el Real Decreto señalado y desarrollado posteriormente por parte del Gobierno español, ha tenido efectos muy importantes en la titularidad y ejercicio de los derechos de las personas inmigrantes que viven en Euskadi y en el Estado español.

No obstante, las distintas asociaciones estatales que trabajan en defensa de los derechos de las personas inmigrantes, diferentes colegios de abogados, la llamada Mesa del Diálogo Social, así como el propio Ararteko en su Informe anual publicado recientemente, coinciden al afirmar que no ha habido tiempo suficiente para regularizar buena parte de la demanda calculada inicialmente, puesto que las fechas en las que se anunció públicamente la flexibilización de los requisitos establecidos (ver nota al pie 1) apenas dejaron un mes para la correcta presentación de todas las solicitudes, prevista para el 7 de mayo de 2005. Claramente, este escaso margen de tiempo imposibilitó que la inmensa mayoría de las personas extranjeras cuya situación era potencialmente regularizable en base al RD en cuestión, pudiesen cumplir las previsiones establecidas en el conjunto de directrices señaladas. Todo ello, considerando que para la obtención de las certificaciones de empadronamiento se requería la participación de los ayuntamientos y de los alcaldes, cuya solicitud de colaboración se hizo de forma apresurada.

Otro problema detectado es que muchos de los certificados realizados por los ayuntamientos en base al conjunto de directrices marcadas por el Gobierno español, y que además, aportaban documentos justificativos de residencia avalados por las alcaldías municipales, no han sido aceptados por parte del Ministerio competente, fijándose el plazo de quince días para la expulsión de las personas afectadas, y en consecuencia, adoleciendo a las claras de la flexibilidad que un proceso de estas características requiere.

Desde EZKER BATUA BERDEAK, más allá de nuestras dudas, no tanto por la oportunidad del proceso en cuestión sino por el procedimiento en sí, y por encima de la necesidad de una nueva Ley Orgánica que concentre y desarrolle correctamente tanto estas cuestiones, como las que afectan a las personas inmigrantes que se hallan en el Estado español sin autorización; pero sobre todo, dada la complejidad del procedimiento, la escasez de tiempo y el importante número de demandantes potenciales que se han quedado al margen, creemos necesaria la puesta en marcha de un nuevo proceso de regularización, a fin de garantizar plenamente los derechos de todas las personas extranjeras susceptibles de acogerse al mismo. En base a cuanto antecede, EZKER BATUA BERDEAK en LEIO, presenta la siguiente:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

MOCIÓN

El Ayuntamiento de LEIOA insta al Gobierno español a regular un nuevo proceso de normalización de la situación jurídica de las personas extranjeras que, pudiendo acogerse al RD 2393/2004, no lo hicieron por falta de tiempo y/o complejidad procesal, facilitando, públicamente y con al menos tres meses antes del cierre del nuevo plazo a determinar, información suficiente sobre los documentos requeridos en el conjunto de directrices establecidas hasta la fecha, admitiendo la documentación que los ayuntamientos consideren válida para las solicitudes de regularización.

Uno de los principales requisitos para presentar la solicitud de regularización era que la o el trabajador estuviese "empadronado en un municipio español con anterioridad al 8 de agosto de 2004" (1.a, Disposición Transitoria 3ª, RD 2393/2004). El Gobierno español desarrolló o amplió la posibilidad de justificar residencia a través de las siguientes directrices:

- 1) 12 de abril de 2005: *Carta circular sobre la inscripción de los extranjeros en el Padrón para el proceso de normalización*, de la presidenta del Consejo de Empadronamiento, enviada a los ayuntamientos, que incluye como potenciales beneficiarias a las personas extranjeras no inscritas en el Padrón, que podrán ser inscritas desde la fecha en que se acredite su residencia continuada mediante resolución expresa y motivada del alcalde; y, a las personas extranjeras que, aún estando inscritas en el Padrón, pero con posterioridad al 7 de agosto de 2004, se les podrá variar la fecha de inscripción en el Padrón mediante resolución expresa y motivada del alcalde.
- 2) 14 de abril de 2005: *Resolución de 14 de abril de 2005 de la presidenta del Instituto Nacional de Estadística y del director general de Cooperación Local, por la que se dictan instrucciones técnicas a los ayuntamientos para la expedición de certificaciones padronales acreditativas de la residencia anterior al 8 de agosto de 2004, de los extranjeros afectados por el procedimiento de normalización inscritos con posterioridad*, dictada por el Consejo de Empadronamiento, que incluye como potenciales beneficiarias a las personas extranjeras no comunitarias, mayores de 16 años, cuyos certificados hayan sido cursados durante el proceso de normalización en cuestión, acompañados de documentos acreditativos de su estancia con anterioridad al 8 de agosto de 2004 y en los que conste su identificación.

Según el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, alrededor de 800.000 posibles demandantes, por 386.173 solicitudes contabilizadas, 7.757 de las cuales fueron realizadas en la CAPV.

En Leioa, a 13 de julio de 2005

EZKER BATUA BERDEAK

EZKER BATUA BERDEAK taldearen MOZIOA urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Araudia onartzen duen 2393/2004 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera atzerritarren egoera juridikoa normalizatzeko prozesuari buruz

AZALPENA

Denok dakigunez, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Araudia onartzen duen abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera atzerritarren egoera juridikoa normalizatzeko prozesua joan den maiatzaren 7an amaitu zen. Errege Dekretuaren bidez hasitako eta Espainiako gobernuakondoren garatutako prozesuak eragin handia izan du Euskadin eta estatu espainolean bizi diren etorkinen eskubideen titularitatean eta erabileran.

Nolanahi ere, estatuan etorkinen eskubideen alde lan egiten duten elkarteak, abokatuen elkargoak, Gizarte Elkarrizketaren Mahaia eta Arartekoa bera (argitaratu berri duen urteko txostenean) bat datoz, hasiera batean zenbatetsitako eskariaren zati handi bat erregularizatzeko denbora nahikorik egon ez dela adieraztean. Izan ere, zehaztutako baldintzak malgutu egingo zirela jendaurrean iragarri zutenetik (ikus 1. orri-oina), hilabete eskas utzi zuten eskabide guztiak 2005eko maiatzaren 7an behar den moduan aurkeztu ahal izateko. Agerikoa denez, oso denbora gutxi izan zuten, eta, horren ondorioz, errege-dekretuaren arabera erregularizatzeko aukera zeukaten atzerritar gehienek ezin izan zituzten aipatutako jarduketa guztietan ezarritako aurreikuspenak bete. Horrez gain, oso kontuan hartu beharra dago udalek eta alkateek bete-betean parte hartu behar zutela errolda-ziurtagiriak lortzeko prozesuan eta presaka eskatu zitzaizela bertan laguntzeko.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Bestetik, ministerio eskudunak ez ditu onartu udalek Espainiako gobernuak zehaztutako jarraibideen arabera egindako ziurtagiri asko, udaletako alkatek berमतutako egoitza-egiaztagiriak eskaintzen bazituzten ere. Hori dela eta, hamabost eguneko epea zehaztu zen kaltetuak herrialdetik botatzeko, eta, horren ondorioz, alde batera utzi zen halako prozesuetan izan beharreko malgutasuna.

Beraz, prozesuaren inguruan barik, prozeduraren beraren inguruan ditugu zalantzak. Gure iritziz, lege organiko berria ezarri beharra dago, gai horiek guztiak eta estatu espainolean baimenik gabe dauden atzerritarretan eragina duten gaiak behar den moduan jasotzeko eta garatzeko. Dena den, batez ere, oso kontuan hartu behar da prozedura bera oso konplexua dela, denbora eskasa izan dela eta ustezko eskatzaile asko kanpoan geratu direla. Hori guztiori dela eta, gure ustez erregularizaziorako beste prozesu bat jarri behar da abian, bertan parte hartu dezaketen atzerritar guztien eskubideak bete-betean bermatzeko asmoz. Esandako guztia kontuan hartuta, LEIOAko EZKER BATUA BERDEAK taldeak honako hau aurkezten du:

MOZIOA

LEIOAko Udalak Espainiako gobernuari eskatu nahi dio atzerritarren egoera juridikoaren normalizaziorako beste prozesu bat arautzeko. Horrela, bada, 2393/2004 Errege Dekretuaren arabera erregularizatu zitezkeen atzerritarrek beste aukera bat izango dute, aurreko prozesuan ezin izan zutelako denbora gutxi edukitzeagatik eta/edo prozedura konplexuegia izateagatik. Horrela, bada, zehaztu beharreko epe berria amaitu baino hiru hilabete lehenago, gutxienez, jendaurrean emango da orain arte ezarritako jarraibide guztietan eskatutako agiriei buruzko informazio nahikoa. Horrez gain, udalen ustez erregularizazio-eskabideetarako baliozkoak diren agiriak onartuko dira.

Leioan, 2005ko uztailaren 13an.

Erregularizaziorako eskabidea aurkezteko baldintza nagusietakoaren arabera, langilea “2004ko abuztuaren 8a baino lehen egon behar zen Espainiako udalerriri batean erroldatuta” (2393/2004 Errege Dekretuaren Xedapen Iragankorreko 1.a). Espainiako gobernuak egoitza justifikatzeko aukera garatu edo handitu egin zuen honako xedapen hauen bitartez:

- 3) 2005eko apirilaren 12koa: Erroldaketa Kontseiluko presidenteak udalei bidalitako *gutun zirkularra atzerritarrek normalizaziorako prozesuari begira erroldan egin beharreko inskripzioari buruz*. Bertan adierazitakoaren arabera, erroldan izena emanda ez duten atzerritarrek balizko onuradunak izango dira, alkatearen berariazko ebazpen arrazoituaren bidez inskribatuak izan ahalko direlako, euren egoitza iraunkorra dela egiaztatzen denetik. Era berean, 2004ko abuztuaren 7aren ostean erroldan izena eman duten atzerritarrek ere izango dira balizko onuradunak, alkatearen berariazko ebazpen arrazoituaren bidez erroldan izena emandako eguna aldatu ahal izango dietelako.
- 4) 2005eko apirilaren 14koa: *Estatistikako Institutu Nazionaleko presidenteak eta Toki Garapenerako zuzendari nagusiak 2005eko apirilaren 14an emandako ebazpena. Horren bitartez, jarraibide teknikoak ematen zaizkie udalei, normalizazio-prozedurapean dauden atzerritarrei 2004ko abuztuaren 8a baino lehenagoko egoitzaren errolda-egiaztagiriak egiteko, beti ere izena egun horren ondoren eman badute*. Izan ere, horrelaxe ebatzi du Erroldaketa Kontseiluak, eta ustezko onuraduntzat hartu ditu Europar Batasunekoak ez diren 16 urtetik gorako atzerritarrek, beti ere euren ziurtagiriak aipatutako normalizazio-prozesuan zehar bideratu badira, 2004ko abuztuaren 8a baino lehenagoko egoitzaren egiaztagiriak aurkezten badituzte eta agiriotan nortzuk diren agertzen bada.

¹ Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren arabera, ustezko 800.000 eskatzaile inguru daude zenbatutako 386.173 eskabideko, eta, eurretatik, 7.757 egin dira EAEn.

EZKER BATUA BERDEAK

EAJ-PNV udal taldeko ordezkariak ondokoa aurkeztu dute, aurretik aurkeztutako mozioaren ordezkotzat proposamen gisa:

“EAJ-PNV hace suya la proposición no de Ley aprobada en el Parlamento Vasco el 15 de octubre de 2.004, y la plantea como propuesta alternativa a la moción planteada el Pleno Municipal.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno del Estado a que proceda a efectuar las modificaciones legislativas necesarias al objeto de remover los obstáculos que impiden a los inmigrantes que tengan trabajo poder regularizar su situación administrativa, entiendo el trabajo como medio por excelencia de adquirir derechos y deberes respecto a la sociedad y de que ésta los adquiera respecto al individuo



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Udal honetako EAJ-PNVk, berea egiten dau Eusko Legebiltzarrak onartutako legez besteko proposamena, 2004ko urriaren 15ean, eta mozio alternatibo moduan proposatzen dau Udal honetako Plenoari.

Eusko Legebiltzarrak Estatuko Gobernuari eskatzen dio behar diren aldaketak egiteko legeetan lanpostua badaukaten etorkinei euren egoera administratiboa erregularizatzen uzteko, lana delako gizartean eskubide eta betebeharrak eskuratzeko biderik hedatuena, baita gizarteak pertsonarekin gauza bera egiteko modua”

Barne Araubideko Informazio Batzordeak aurkeztutako proposamenak Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipintzea erabaki du, bertan haiek onesteari buruzko erabakia har dadin.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Aipatu du, alternatiba bat aurkezteko asmoa dagoenez, eta haiek aurkeztu duten mozioaren osagarria dela esan daitekeenez gero, betiere Eusko Legebiltzarrean onetsi den espirituaren isla izanik, euren mozioa kendu egingo dutela, EAJ-PNV eta EA taldeek aurkeztutako alternatibaren alde egiteko, baina ezin da ahaztu gai hau errepikaria dela, zenbait kasutan erantzun irmoa emateko gai izan ez arren, hala nola, erroldak emateari uko egitea indarrean dagoen Atzeritarrei buruzko Lege txarraren aplikazioari dagokionez.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Bere taldeko botoa Ezker Batuak eta EAJ-PNV eta EA taldeek aurkeztutako mozioen aurkakoa izango dela adierazi du; izan ere, alderdi horren ustez, Alderdi Sozialistak garatutako aparteko erregularizazio-prozesua porrota izan da, Ezker Batuaren mozioak aitortu duen bezala, hainbat oker gertatu baitira, besteak beste, aurkezpena presaz egitea. Ekintza horren ondorioz, gizartean alarma eragin da, emigranteak kaleratu dira eta deiaren inguruan ikaragarritzko ondoreak sortu dira. Egunotan, halakoak zoritxarrez Ceutan eta Melillan ikusi dira, eta gerri horietan gertatzen ari diren gertakizunen aurrean gaude.

Aipatu du, aparteko erregularizazio-prozesu horretan hainbat oker gertatu direla, besteak beste, aurkezpena presaz egitea ukitutako administrazioei bizkarra emanda, hain zuzen ere, autonomia-erkidegoei, udalei eta Europar Batasuneko gainerako herrialdeei. Gainera, ez da aintzat hartu etorkinen beharrianak asetzeko beharrezkoa den finantzaketa. Gai horren inguruan bere alderdiak esan du migrazioen gertakariak duen konplexutasunaz jabetu dela, baina euren apustua integrazioa zuzendutako plangintzaren aldekoa dela, migrazio-fluxuen plangintzarekin eta Europar Batasuneko herrialdeekin bat eginda.

Era berean aipatu du, ez diela laguntzarik emango emigratioari buruzko Europako politika bateratuaren aurkako ekimenei. Euren iritziz, Ezker Batuaren mozioan jorratutako aldizkako erregularizazio jendetsua okerreko egintza da, irregulartasunaren alde egiten baitu, hots, gizakiekin trafikatzan duten erakundeen mesederako izango da. Horregatik, legezko emigratioaren aldeko neurriak bultzatu behar dira eta emigratio irregularra murriztu behar da, emigratio irregularren aurka borrokatzen duten jatorrizko herrialdeek egindako ahaleginak sendotu behar dira, eta, Nazioarteko Komunitateak politika lagungarriak sustatu behar ditu aipatu herrialdeen egoera hobetu dadin.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Azkenik, adierazi du migrazio-fluxuak ez direla gizartean gatazka bat izan behar, baldin eta horiek gure herrialdeko merkatuaren lan-aukerekin eta integrazio-gaitasunarekin bat egiten badute. Gisa berean, emigrazioaren integrazioa gizartearentzako erronka garrantzitsua da, eta, ondorenez, guztientzat aberasgarria izan daitekeen faktore bihurtu behar da, arazo gisa jo daitezkeen neurri demagogikoak saihestuz. Modu horretan, aurreratu den bezala, Ezker Batuak planteatu duen proposamenaren aurka ageri dira, baita euren ustez lerro zuzena ez daraman alternatibaren aurka ere, hain zuzen ere, Eusko Alderdi Jeltzaleak bere garaian aurkeztu eta Eusko Jaurlaritzan aurkako botoa eman zuenaren aurka.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Aipatu du bere Talde Politikoak ere mozio bien aurkako botoa emango duela. Horrez gain, esan nahi du EAJ eta EA alderdiek aurkeztu duten mozioa Legebiltzarrean onetsi dutela erregularizazio-prozesuaren aurreko fasean, eta, behin Gobernuak erregularizazio-prozesua garatu eta gero, euren iritziz une honetan ez da beharrezkoa beste erregularizazio-prozesu bat irekitzea.

Jarraian adierazi dio PP alderdiko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunari berari dagozkion zenbait planteiamendu egin dituela, baina Alderdi Sozialistari erregularizazio-prozesua oso positiboa iruditu zaiola, oraindik datu zehatzak eman ezin arren. Izan ere, autonomia-erkidego batzuetan oraindik prozesu hori amaitu gabe dago, baina langile emigranteen %90a erregularizatuta dago. Era berean adierazi dio PP alderdiko Xabier Olabarrieta jaunari, berak esan duen bezala, ez dela beste erregularizazio-prozesurik ireki behar, baina hori egiten ez bada, esklaboak egongo dira, eta langileak erregularizatu gabe geratuko dira, eta PPko kideak adierazi duen bezala, lehendik bizi duten egoerari eutsi beharko diote, egoera hori erregularizatu gabe geratuz. Gainera, esan du Melillako ondorea ez duela eragin erregularizazio-prozesuak, eta emigrazioaren inguruko arazoak ez dituela sortu Espainiako Gobernuak edo erregularizazio-prozesuak, ezpada munduan dagoen goseak. Hori dela medio, gai horiei begira dagoen demagogia gutxienezkoa izan behar da.

Gai horren gainean adierazi du boto negatiboa emango dutela mozioaren aurrean, haien ustez erregularizazio-prozesua ondo eginda dagoelako, eta, une hauetan, erregularizatutako pertsonen integrazioaren alde lan egin behar delako, betiere fluxuak behar den bezala erregularizatuta, PPko Xabier Olabarrieta jaunak adierazi duen bezala. Izatez, gure herrietara datozen pertsonak lanarekin etortzeko ahaleginak egin behar dira. Horrenbestez, toki haietan dauden erakundeekin batera lan egin behar da eta kuotak malgutasunez ikusi behar dira. Horrez gain, lana egin beharko da, berebat, gizarteko erakundeekin eta gai horren inguruan zer esan handia duten autonomia-erkidegoekin.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du gai honen inguruan eztabaida handiak sor daitezkeela, eta bere taldeak EAJ eta EA alderdiek batera aurkeztu duten mozioaren aldeko botoa emango duela. Izan ere, mozio hori bakarrik aurkeztuko da, EB-Berdeak aurkeztutako mozioa kendu egin da eta.

Kasu horretan, Alderdi Popularrak adierazi du emigrazioari buruz egindako lan guztia oso txarra izan dela, eta Alderdi Sozialistak erregularizazio-prozesuan egindako lana ondo zuzenduta egon arren, jaso duen jarauntsia benetan tamalgarria izan dela.

Alkate den aldetik, adierazi du ez duela ondo pasatu, baina ez laguntzarik eman ezin izan delako, ezpada laguntza hori ematea oso zaila izan delako, eta kudeaketa guztiak egiteko ezarri aldian errotzeko modukoa izan delako. Bere parte-hartzearekin amaitzeko, aurreko politikari begira dagoen egoera hobetu egin dela aipatu du. Horrez gain, beti begiratu beharko da etorkizunera.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Eako Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa adierazi du:

Eako taldeak PPko ordezkariari adierazi dio PSE-EE-PSOEn jardunak hutsegiteak izan baditu, halakoak gertatzen direla hain nahastuta eta beltzak ageri diren bidegabekeriak konpontzea zaila izategatik.

Horren inguruan Alderdi Sozialistak okerren bat egin badu, jardun zuzena zein den adieraztea oso zaila izan arren, eta PPko bozeramaileak beste garai batzuei begira zenbait jardun ezberdin aipatu arren, PSE-EE-PSOEk egoera berriro gidatu duela uste du.

Bere parte-hartzearekin amaitzeko, EA eta PNV-EAJ alderdiek egindako proposamenaren alde egingo duela adierazi du.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Lehenengo eta behin adierazi du, haiek esandakoaren arabera, prozesua ez dela egokiena izan, hainbat hutsegite antzeman direlako, euren garaian salatu duten bezala. Lehenengo erroldaren inguruan aurkitu da, hain justu ere, PPko Legearen arabera, udalei errolda polizia emateko betebeharra ezartzen zaienean, polizia horrek legezkoak ez diren emigranteen kopurua zein zen zehazteko. Hala ere, ez dirudi zentzuzkoa emigranteak taldean erroldatzea, komisarian ezkutaketan jolastea bezala izan baitaiteke. Horrela, adierazi du gai hori lege horren akatsetako bat izan dela, baina dirudienez hobetuz doa. Izan ere, bere ustez herenegun atera da bidaiatzeko billetea onartzen duen epaia, eta, epe hori oinarria izanda, berrogeita bost mila eta berrogeita hamar mila kasuren artean berrikusi daitezke.

Jarraian adierazi du lan hori hobeto egin daitekeela, baina gaizki egin daiteke, edo ezer ez, eta prozesuaren emaitzak onak izan dira. Hala ere, agerian utzi du gauza osagabea dela, egoera den bezalakoa dela, eta, txapeloker gehiago ekarrita ere, edo, Melillan sei eta hamabi metroko hesia altxatzen bada ere, ez du eragotziko hesiaren gainetik salto egitea. Agian, ez dute hesiaren gainetik salto egingo, ezpada hesia ebakitzeko tresnak salduko dizkien trafikatzaila egongo da, baina jendea pateretan iristen da, eta hiru edo lau metroko arantzadun alanbre batetik arropa eta haragi urratuekin erortzen dira, eta konponbide bakarra poliziak horiek hartu eta fitxatzea da lehenengo munduan murgiltzeko. Horri dagokionez aipatu du deiaren ondorea janariaren usaina dela, eta ez lege hau edo besterik. Gainera, zalantzak ditu inork ulertzen badu edo unean-unean badaki, Afrikan jende horrekin trafikatzeko duten mafiosoak barne, zein den erregularizazio-prozesu hori arin egiteko erabili den funtsa. Horrenbestez, gose ez diren txiroak janariaren usainaren ondorioz etortzen dira, hau da, gizartean bizi den oparotasunak eta gure kontsumismoa bizitzeko dagoen moduak bultzatzen du jendea hobeto bizi daitekeen tokietara joatera.

Gainera, adierazi du manta edo top mantaren jardueran aritzen den edota aritu den lagun bat baino gehiago dituela, eta halako bati berak daraman bizitzari buruz galdetzen zaionean horrek erantzuten du bizitza ona daramala eta dirua irabazten duela etxera bidali ahal izateko. Horregatik, gauzak erlatibizatu egin behar dira; izatez, kasu horretan, bere talde politikoaren asmoa gauza asko ez direla ondo egiten gogoraraztea da, baina aurrera egin behar da, bai altxatzen diren hesi guztiak direla medio, bai egiten diren lege guztiak aintzat hartuta. Izan ere, modu horretan ez dira geldiaraziko paterak, ez itsasartean ezarritako radar izugarrien bidez, ezta hamabi metroko hesien bidez ere. Are gutxiago, ez zaie sinestaraziko mugaz bestaldean errepresioa bultzatu behar denik hildakoak beste alde honetan gera ez daitezen.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Horri dagokionez, zenbait ohar adierazi ditu:

Lehenengo eta behin, PSE-EE-PSOE taldeko bozeramailea den Susana González Rómulo andreari adierazi dio halako gauzak esaten dituela horrela egitea dagokiolako, eta, dirudienez, PSE-EE-PSOeko bozeramaileak ere gauzak esaten ditu horrela egitea dagokiolako, baita pertsona bakoitzak esaten dituen gauzak ere.

Bigarrenez, Alderdi Sozialistak egin duen aparteko erregularizazio-prozesuaren gaiari buruz adierazi du eurek erregularizazio-prozesua garatzeko modua kritikatu edo kritikatzeko dutela; izan ere, euren ustez ez dute lana ondo egin, zenbatu dituen arazoak direla medio. Bestalde, gauzatutako erregularizazio-prozesua positiboa dela esatea, gaur egun ez da egokia, batez ere, Ceutan eta Melillan ondorioak ageri-agerian daudenean, eta zona horietan armadak nahiz sei metroko altuera duten hesiak altxatzen daudenean. Hori dela bide, adierazi du neurri horiek ez direla behin betikoak izango arazo horiei aurre egiteko, baina halakoak burutzen dituzte, ziurrenik ere, Gobernu Sozialistak garatutako emigrazioaren politika txarraren emaitza gisa.

Azkenik, alkate jaunak aurreko gobernuan izandako Alderdi Popularraren politikari buruz kalifikazio tamalgarrria egin du, esaterako, 1997. urtean 360.000 atzerritar egon badira ere, egoitza- edo lan-baimena izanik 2004. urtean, hots, Alderdi Popularraren azken urtean, egoitza- edo lan-baimena dutenen kopuru hori 1.700.000 atzerritar izatera iritsi da. 1997 eta 2004. urteen artean emigrazeen kolektiboan dagoen enplegu-tasa ia-ia %300 areagotu da, Europako batezbestekoa baino lau aldiz handiagoa izanez; beste datu aipagarri bat da 2004. urtean Espainiako herritar guztien %9,6aren aburuz, emigrazioa arazo nagusia izango dela, eta, 2005. urtean ehuneko hori %23ra igo da, hau da, herritarrek emigrazioa gero eta arazo garrantzitsuagozat jotzen dute, eta, horien ustez, hori guztia Gobernu Sozialistak gai horren inguruan eraman duen politika txarraren ondoriozko emaitza izan da.

Azaldutakoa aintzat hartuta, datu zehatzak utzi nahi izan dituzte, euren ustez, alderdi horretan politikarik egokiena zein den argi eta garbi utzi dutelako.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

PPko Xabier Olabarrieta jaunari adierazi dio PP alderdiak ez duela erregularizazio-prozesua garatzeko modua bakarrik kritikatzeko, ezpada Alderdi Popularrak formula eta erregularizazio-prozesua kritikatzeko dituela.

Horren inguruan adierazi du, atzo oraindik ere PPko gidari batek esan zuela egunotan etorritako emigranteek lana izanez gero, lehengusuari edo osabari eta lagunari eta edozeini abisatzen dietela, eta hori errotzeko modukoa da. Gainera, adierazi du hori ikusi nahi duenak ikusten duela, eta, hortaz, ez du argituko zein den osaba, lehengusua eta laguna etortzeko arrazoia, gai hori EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourruitiak oso ondo azaldu du eta. Horregatik, ez du azalduko zerk eragiten duen deiaren ondorena, baina ezin dute esan prozesua garatzeko modua kritikatzeko dutela eta ez prozesua, Alderdi Popularraren guztiek, lehendakariarengandik hasita, modua eta prozesua kritikatu dituzte eta.

PP alderdiko Xabier Olabarrieta jaunak adierazi du PSE-EE-PSOEk eraman duen politika txarra izan dela, orduan adierazi dio Alderdi Popularrak azaldutako emigrazioaren inguruan aplikatutako politikari eta politika horrek jarraitu duen bideari buruz hitz egin dezaketela. Modu horretan ikusi ahal izango dute bere iritziz bat egin edo bateratu ezin daitekeen legea.

Emigrazioa arazoa den edo ez adierazteari dagokionez, PPko Xabier Olabarrieta jaunari adierazi dio emigrazioa ez dela arazoa, ezpada egunotan gertatzen ari den gertakaria, hain justu ere, oso aberastasun garrantzitsua ekar dezakeena. Horren gainean adierazi du, Alderdi Popularraren Xabier Olabarrieta jaunaren kide askok egindako hitzaldien ondorioz emigrazioa arazo bezala ikusten dela, eskuinekoen alderdia baino alderdi gogorragoan kokatzen diren hitzaldien ondorioz, alegia. Hori da hain zuzen emigrazioa arazo gisa ikustea bultzatzen duena, aditzera ematen diren gauzen



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

antzekoek, une batetik aurrera esaten ari diren gauzek, esaterako, "halakoak etortzen dira eta lana kentzen digute". Horregatik, halako esaldiak direla medio emigrazioa arazotzat jotzen da, bai eta aurretik Alderdi Popularreko gidari baten adierazpenak direla medio ere. Ondorenez, hori guztia aintzat hartuz gero, hitzak neurtu egin beharko dira.

EAJ-PNVko Karmelo Sainz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Jarraian adierazi du EB-Berdeak alderdiak bere Talde Politikoa aurkeztutako mozioa kendu eta Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasunak batera aurkeztutako proposamenera bildu dela ikusita, proposamen horren gaineko bozketa egingo da.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamabi boto, EAJ-PNVko bederatzi ordezkariak, EB-Berdeak taldeko bi zinegotziak eta EAko ordezkariarena; aurkako zortzi boto ere egon dira, PSE-EE-PSOeko lau ordezkariak eta PPko lau ordezkariak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** atzerritarren egoera juridikoa normalizatzeko prozesuari buruz EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak taldeek sinatutako proposamena onestea.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

15.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2005-07-23tik 2005-09-22ra. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkateak emandako dekretuen kopia eta Tokiko Gobernu Batzarrek egindako bileren akten kopia, azter ditzaten.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Lamiako-Txopoetako zelaiak birmoldatzeko inaugurazio-ekitaldiari buruzko 580. zenbakia daraman 2005eko uztailaren 27ko dekretuari dagokionez, bere taldeak aurreko uztailan egindako osoko bilkuran galdera bat egin du, oposizioko taldeak aipatu birmoldaketaren inaugurazio-ekitaldira ez gonbidatzearen inguruan; izan ere, inaugurazio-ekitaldi hori BBKak eta Aldundiak antolatu dute, baina haiek komunikabideen bidez izan dute horren berri. Ondorenez, adierazi dute Gobernu taldearen jarduteko modua ez zaiela egokia iruditu.

Egoera horren aurrean, alkateak inaugurazio-ekitaldian BBKaren gonbidapenarekin parte hartu duela aipatu du, eta, orain, 580. zenbakia daraman 2005eko uztailaren 27ko dekretua aintzat hartuta, udalak kreditu-erreserba bat eratu du inaugurazio-ekitaldiaren ondorioz sortutako gastuak ordaintzeko, eta, kasu horretan, 4.700 euro inguruko gastuak eragin dira. Hori dela bide, azalpenak eskatzeko soil-soilik parte hartu du. Izatez, hasieran ez da ondo azaldu alkateak gonbidatu gisa parte hartu duela, azken batean, udalak ordaindu duena, eta ulertezina egiten zaie udalak ordaintzen duen ekitaldi batera gainerako korporazioak edo oposizioko taldeak ez gonbidatzea.

Bere parte-hartzearekin amaitzeko inaugurazio-ekitaldirako erabili diren 4.700 euro inguruen helburuari buruzko informazioa eskatu du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Une honetan, Tokiko Gobernuaren Batzordeko dekretuen eta ebazpenen atalean aurkitzen direla adierazi du. Hortaz, egindako galderaren erantzuna eskaeren eta galderen atalean jaso da.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

16.- PRESAKO MOZIOAK

Atal honetan ez da moziarik aurkeztu.

17.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Atal honetan PP alderdiko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak egindako galderari erantzuteko unerik egokiena dela adierazi du.

Lehenengo eta behin adierazi du Alderdi Sozialistak Pinuetako Plan Bereziari buruz idatziz aurkeztu duen galderari erantzun nahi diola. Horrela, eskerrak eman dizkio hori egiteko erabili duen moduagatik, gisa horretan, zehaztasun handiagorekin erantzun ahal izango du eta.

A) PSE-EE-PSOE alderdiak Pinuetako Plan Bereziari buruz egindako galdera

“Aurreko agintaldian, berorrek ere udalerrri honetako alkatetza izanik, Pinuetako Plan Berezia ordezkatzeko dudaren aldean, PSE-EE-PSOEren, aurkako botoarekin onetsi da. Bada, berorrek azaldutako zenbait arrazoiaren ondorioz, plana baztertu egin da, edo, gutxienez, ez da jarri praktikan. Hala ere, agintaldiaren erdialdean aurkitzen garenez, eta Pinuetako auzoan Planaren eraketarako bildu diren beharrezkoak daudenez, ondorengo galderak egin nahi dizkizugu:

1. Aurkeztutako planak gaitzespena eragin du Pinuetako auzoan bizi diren herritarren artean, baina oraindik ere beharrezkoak daude. Hori dela eta, aipatu plana berriro eratzeko aukera planteatu al duzue, auzo horri eta bertan jasaten den masifikazioari begira udalak duen zor historikoa kontuan izanda?.

Egin al da ingurumen-inpaktuaren ikerlana Iberdrolaren azpiestazioari dagokionez? Eta, egin al da Iberdrolarekin inolako topaketarik azpiestazioa desagertzea ahalbidetzen duen adostasun batera iristeko?”

Alkateak adierazi du galdera idatzita dagoen moduan kontuan izanda hori oker dagoela; izatez, planik egongo ez balitz bezala idatzi da, baina Pinuetako Plan Berezia dago, hasieran, udal honek onetsi duena Alderdi Sozialistaren aldeko botoarekin; ostean, plana behin behinean onetsi da PSE-EE-PSOE alderdiaren aurkako botoarekin.

Bigarrenez, adierazi du idatzian Plan Berezi gisa agertzen dela, eta auzokoak horren aurka ageri direla. Hala ere, bere iritziz, egia erdizka da, Plan Bereziak bi etapa izango ditu eta; batetik, ahobatekotasuna dagoela uste du, eta, horrez gain, auzo-elkartearen oniritzia du. Kasu horretan, Gaztelubiden egindako jardun osoa barneratzen du, hain zuzen ere, zero azpitik duen kotarekin egindako aparkalekua eraikiko da, eta Gaztelubideko sarbidea birmoldatuko da. Horrenbestez, oinezkoen alderdia modu nabarian hobetuko da eta udaleko zerbitzu publikoari dagokion ekipamenduaren azpiegitura eratuko da. Horren gainean adierazi du Plan Berezi hau Foru Aldundiari igorri zaiola horrek behin betiko onetsi dezan. Gai horri dagokionez, bera Aldundian egon da Angel Pérez Iniesta jaunaren eta Jon Berreiciartua jaunaren ondoan, azken zehaztasunak aipatu ahal izateko. Horrenbestez, laster Hirigintzako Informazio Batzordean gai hau kudeatzeko bi ekimen aurkeztuko direlakoan daude.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hau lehenengo etapa dela berretsi du, bere iritziz, auzoari kalitatea emango baitio, eta, ondoren, ikasten jarraitu beharko da. Horren gainean adierazi du berak inoiz ez duela Plan alternatiborik ikusi, baina egia esan, gai konplexua da haiek luzaroan jorratu dutena, eta, era berean, Aurrekontuaren atal handi bat erabili beharko da aipatu Pinuetako Plan hori garatzeko, bai eta Txorierrri, Ikea Mendia eta abarren gain eragina izan dezakeen guztia gauzatzeko ere. Halaber, Plan Berezia ezarritako moduan betearaziko dela aipatu du, salbu eta norbaitek Plan alternatibo hobeagoa aurkezten duenean, baldin eta ikuspuntu teknikitik bideragarria, finantzatzeko modukoa eta ekonomiaren ikuspegitik eramangarria bada.

Iberdrolako azpiestazioaren kasuan, Angel Pérez Iniesta jaunak alternatibak eratu dituela adierazi du, eta, hori oinarri izanda, Areako zuzendariordeekin bildu dira, eta, azken bilera iparraldeko zuzendari nagusiarekin batera egin da, hurrengo asteetan berriro biltzeko konpromisoa hartuz. Mahai gainean aurkeztu diren alternatiben artean, honakoa aipatu da: milioiak esku artean izanez gero, Iberdrolako azpiestazioa kenduko da, baina arazo bat dago, hain zuzen ere, diru-kopuru hori Leioak eman dezakeen jakitea, gehiegizkoa izan daiteke eta. Hori dela bide, agian seihun milioirekin betearazi ahal izango da, eta lursail alternatiboa eman daiteke instalazio-aldaketa egin dadin. Berak adierazi duenez, beste aukera bat dago, batik bat, aldaketa egitea, Ezker Batuak Bilbon Gardokirekin egin duen bezala. Beraz, aukera horien artean zein den bideragarria aztertu beharko da, betiere ikuspuntu tekniko nahiz ekonomiko kontuan izanda.

Bere parte-hartzearekin amaitzeko adierazi du norbaitek ideia hobeagoak baditu, eta Leioarentzat eramangarriak badira ikuspuntu tekniko nahiz ekonomiko kontuan izanda, ideia hori adieraz dezan berori aztertu eta betearazteko.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Adeitasun osoz eta alkateak emandako azalpenenak eskertuz; ondorioz, adierazi du gutunean ez dela ezartzen Pinuetak ez duela planik, ezpada Pinuetako Plan Bereziari buruz hitz egiten dela, Alderdi Sozialistaren aurkako botoarekin onetsi dena, baina hor esaten denaren arabera, EAJ-PNV taldeak osoko bilkuran adierazi du plan hori izoztuta geratu dela.

Bere parte-hartzearekin jarraituz, alkate jaunak adierazi du Hirigintzako Batzordean landuko diren bi proposamenei buruz, hots, guztiek gustukoa izango dutenei buruz, egindako adierazpenekin poztu egin dela.

Iberdrolako azpiestazioaren kasuan, bere talde politikoak urte asko daramatza eskaera zehatza egiten, hain justu ere, Iberdrolarekin adostasun batera iristeko formulak bilatzea, Pinuetako azpiestazioa ezabatzeko ondoretarako, baina euren iritziz nahiko gai zaila dela adierazi dute.

Bere parte-hartzearekin amaitzeko, alkate jaunari adierazi dio gai horren inguruan Txorierrri gaiari buruz egin diren adierazpen berberak egin dituela, hau da, edo aipatu moduan egiten da, edo, bestela, proposamen alternatibo hobeagoa aurkeztu behar da, horren inguruan zerbait hobeagoa aurkeztu ahal ditzaketela baieztatuz, baina alkateak ezin dio gauza bera eskatu bere talde politikoari; izatez, udaleko talde sozialistan lau zinegotzi daude, bulego bat, telefono bat eta ordenagailu bat, eta, modu horretan, haiek ezin dute Pinuetarako plan berezi alternatiborik egin, ezta Txorierrri auzoak dituen beharrezko plan alternatibo teknikorik aurkeztu ere. Horregatik, gauzak modu zuzenean jarri behar dira, eta Talde Sozialistak ekarpena egin dezakeen heinean, bere ustez ekarpena egiten du, eta, zorionez, sarritan aintzat hartu da.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, berak inoiz ez du esan Pinuetako Plan Berezia izoztuko denik, ezpada lehenengo etapa bat izango duela, horretan Gaztelubiden egin beharreko jardunari dagokion lehenengo fasea betearaziz.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Bigarrenez, adierazi du plan hori ikuspuntu teknikitik bulego teknikoak eta ingeniari-tza bateko laguntzaile teknikoek eta arkitekto-talde batek egin dutela, eta, berak segimendu bat egin duela teknikari horiek egindako lanaren inguruan. Horrela, alternatiba ezberdinei buruzko zenbait galdera egin dizkie, eta, horiek emandako erantzunak aintzat hartuta, ikuspuntu teknikitik batzuei ezin zaie eutsi, eta, beste batzuk, ordea, bideragarriak dira, baina mila milioi pezeta inguruko ekarpen ekonomiko esanguratsua behar da. Hori dela medio, irtenbide hoberena aurkitzeko egoeraren aurrean daude. Bestalde, Gaztelubideko jarduna egin daitekeela adierazi du, baina horretarako diru publiko asko behar izateaz gain, Txorierriko auzoan modu berean egin beharko da. Hortaz, alternatibak kasu kasuko Informazio Batzordean aztertuko dira, eta horren kudeaketa egin eta kudeaketa hori gauzatzeko behar den aurrekontuari buruzko proposamena egingo da.

b) PP alderdiak Lamiako-Txopoetako zelaiak birmoldatzeko inaugurazioari buruz egindako galdera

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du aurretik Alderdi Popularrak egindako galderari erantzungo diola, haiek galdera idatziz egin ez badute ere, erantzun egin nahi die eta.

Adierazi du berak ez dituela idazkiak idazten, ezpada lan hori sail ezberdinetako teknikariek edo idazkariak egiten dutela, eta, ziurrenik ere, dekretu honen izendapena ere ez dela egokia aipatu du; izan ere, gai horren inguruan sortu diren gastuak haiek izan dira:

Lehenengoa, ur-hornidura sarea ezartzea, baina ez inaugurazio-ekitaldirako, etxolen azpiegituraren zuzkidura hobeagoa izateko baizik; horren gastua bederatzi edo hamar milioi pezetakoa izan da.

Bigarrena, botikina ipini da, eta BBKaren eskabidez, emigrazioari buruzko zenbait kartel jarri dira zelaietan.

Adierazi du inaugurazio-ekitaldian ez dela pintxorik eman, ez Batzokian erositakorik ez beste inon erositakorik ere; horrez gain, aipatu du udalak ez duela baloia erosi, baina berak baloia jaurti du, BBKaren eskutik gonbidatua izan delako, BBKak antolatutako ekitaldia izan dela adieraziz.

Bere parte-hartzearekin amaitzeko adierazi du bera ere noizean behin erratzen dela, baina halakorik gertatzen denean, esan egiten duela; hala ere, aurreko osoko bilkuran esan duen bezala, gai honen inguruan PP alderdiko bozeramailea erratu da.

Gisa berean, PPko bozeramaileari adierazi dio politika egiteko betebeharra duela, eta horregatik egiten du hori, baina badaude politika egiteko hori baino gai interesgarriagoak. Beraz, halako gaietan ez sartzeko gomendatu dio.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Lehenengo eta behin, bere desadostasuna agerrarazi du dekretuei buruzko 15. paragrafoko galdera lekualdatzearen ondorioz. Bere aburuz, galdera hori une horretan egin behar izan da, dekretu bati buruzko galdera delako, eta, batez ere, horri buruzko azalpenak eskatu dituztelako. Horregatik, uste du une horretan egin behar izan direla dekretuei buruzko galderak, baina alkatearen borondatez, hurrengo puntura lekualdatu da, une horretan egitea ez dagokiola ulertuz.

Bigarrenez, Talde Sozialistak idatziz aurkeztu dituen galderei dagokienez, alkateak esan du izan behar den moduan gertatu dela, baina bera ez dago ados, osoko bilkuran galderak ahoz edo idatziz egin baitaitezke, Toki Araubidearen Kodeak jasotzen duen bezala. Horregatik, eskubide osoa dute galderak ahoz edo idatziz egiteko, eta, alkateak edo Gobernu-taldeko edozein kidek ez du osoko bilkura berean erantzun behar, hurrengo osoko bilkuran edo edozein batzordetan erantzun dezake eta. Horrela, galdera ahoz eginez gero ere, ez du esan nahi inolako mesprezurik egiten denik, ezta galdera egiteko modu arraroa denik ere, ezpada baimendutakoa besterik ez da egingo.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Alkate jaunak 4.700 euro inguruen helburuari buruz eman duen erantzunaren kasuan, baliozkotzat jo dituzte emandako azalpenak, baina uste dute galderak egiteko eskubidea dutela, hau da, diru-kopuru horren helburua zein izan den jakitea. Izatez, dekretuan jartzen duenari helduta, 4.700 euroak inaugurazio-ekitaldia egiteko erabili dira, eta alkate jaunak aurreko osoko bilkuran gai horri buruz esandakoa aintzat hartuz gero, galderak egin eta behar diren bezalako azalpenak jasotzeko eskubidea dutela ulertzen dute. Bada, gobernu-taldea kontrolatzeko zereginaren barruan dagoen beste alderdi bat, eta, euren iritziz, hori egiteko eskubide osoa dute.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du galdera egiteko duen eskubidea aitortzen diola, eta, inoiz ez duela eztabaidatu galdera idatziz edo ahoz egin behar den, baina, bere ustez, adeitasun kontua da, eta modu berean, horrek eskubidea du hurrengo osoko bilkuran erantzuteko, baina adeitasunez, osoko bilkura berean erantzungo du, dekretua zehaztasunez ezin aztertuz; hala ere, erantzuna emango du pertsona adeia izan nahi duelako.

c) EB-Berdeak egindako eskaera

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du galdera horiekin zerikusia duen eskaera bat egin nahi duela, zenbait kasutan gaiaren mamia azaldu dela adieraziz, hain justu ere, oposizioko taldeek udalak zein ekitalditan parte hartzen duen ez jakiteari buruz, eta, udala guztiok garelako kontzeptua aintzat hartzen bada, alkatea ageriko burua eta legezko ordezkaria izan arren, eskatu du alkateak hori korporazioei fotokopia baten edo antzeko zerbaiten bidez jakinaraztea, udalak zein ekitalditan parte hartu duen jakiteko; bestalde, horren gainean adierazi du batzuetan halakorik egin dela.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du berak ere hori sustatu duela eta egin nahi duela, baina batzuetan alkate jauna bakarrik gonbidatzen dela, udalaren ordezkari gisa.

Horri dagokionez, eurak gonbidatuak izan diren hainbat ekitaldi ere egin direla adierazi du, eta, berak ez du inolako eragozpenik modu horretan egiteko.

Bere parte-hartzearekin amaitzeko adierazi du Kulturako Informazio Batzordeak Leioako Eguna Artaza Jauregian ospatzea proposatu duela, hain zuzen ere, azaroaren 3an, ezarritako urriaren 31aren ordezkari, egun horretan zubia baitago. Era berean, politikariei sarrerak banatu zaizkie urriaren 23an Euskalduna Jauregian egingo den kontzertura ager daitezzen, eta, gonbidapena Leioako gizarte-eta kultura-taldeetara hedatuko da.

d) PPko alderdiak egindako galdera Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriari buruz, batez ere, Kulturako atalari dagokionez

PPko Xabier Olabarrieta Arnáiz jaunak honakoa adierazi du:

Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriari buruz, batez ere, Kulturako atalari dagokionez adierazi duenaren arabera, egiaztatu daiteke azoka eta erakusketei buruzko informazioa jasotzen den atalean ez dela Leioa agertzen, Bizkaiko udalerrien erakusketak-aretoei buruzko informazioa jaso arren. Hori dela eta, ikusi duten informazio osoa Gobernu-taldeari helaraziko die Leioa informazio horretan ez agertzeko arrazoiak aztertzea ditzaten. Gainera, udalari eskatu dio udalariaren itxura zaindu dezan erakundearen internet orri horietan, gaur egun, herritar askok erabiltzen baitute informazioa eskuratzeko.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Jasotako informazioagatik eskerrak eman ditu, eta, horri dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian jasotako informazioan Leioa ez agertzeko arrazoiak aztertuko dira. Horrenbestez, udalerrri horren informazio guztia jasotzeko ahalegin guztiak egingo dira.

Jarraian alkate jaunak adierazi du entzuleetako batek hitza eskatu diola eta une horretan parte hartzeko aukera eman dio. Ondoren bere parte-hartzeari ekin dio.

Eta gaueko bederatzia eta laurden direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA,

IDAZKARIA,